

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

14974 *17/2021 Errege Lege Dekretua, irailaren 14koa, Gasaren eta elektrizitatearen txikizkako merkatuetan gas naturalaren prezio-igoeraren eragina arintzeko presako neurriena.*

I

Elektrizitatea ekonomiaren aldagai sistemiko bat da, eta familiei, autonomoei, enpresei, industriari eta ekonomia osoari eragiten die. Elektrizitateak handizkako merkatuan duen prezioa estu lotuta dago gas naturalak nazioarteko merkatuetan duen kotizazioaren bilakaerarekin.

2021eko otsailaz geroztik, gas naturalaren kotizazioa % 250 baino gehiago hazi da bat-batean Europako merkatuetan. Aurrekaririk gabeko mailetara iritsi da, eta zuzenean eta modu negatiboan eragin dio elektrizitateak handizkako merkatuan duen prezioari.

Testuingurua hori izanik eta kontuan hartuta energiak oro har eta elektrizitateak bereziki izaera sistematikoa dutela ekonomiari begira eta bizi dugun egoerak familiei, ETEei eta industriari kalte larria eragiten diela, presako eta ezohiko neurri arautzaileak hartu beharra dago. Neurri horiek, Estatuko eta Europako ordenamenduarekin bateragarriak izanagatik, azaldutako ondorioak zuzendu eta kontsumitzaileak babestu behar dituzte, udazken eta neguko hilabeteak —hau da, energia-kontsumo handienekoak— iristear diren honetan.

Azken hilabeteetan elektrizitatearen handizkako merkatuan izan diren prezio altuek alarma sozial eta kezka handia eragin dute, elektrizitateak funtsezko zeregina betetzen baitu etxeko ekonomietan, batez ere kolektibo kalteberenengan. Hori dela eta, egoera zuzendu beharra dago, gure ekonomiaren lehiakortasuna arriskuan jartzen duelako eta eragin negatiboa duelako etxeko ekonomietan.

Elektrizitateak handizkako merkatuan duen prezioa hazi eta hazi egin da 2021eko otsailetik. Izan ere, hura izan zen elektrizitatea merkeen egon zen 2021eko hilabetea: otsaileko batez besteko prezioa 28,49 €/MWh izan zen, Espainiako Merkatu Iberiarreko Operadoreak (aurrerantzean, OMIE) emandako datuen arabera. Azken hilabeteetan, gorako joera hori nabarmen larriagotu da, eta prezioak inoizko mailarik handienara iritsi dira. 2021eko uztailaren 21ean, elektrizitatearen eguneko prezioak (106,57 €/MWh) gainditu egin zuen segida historikoko aurreko preziorik handiena, alegia, 2004an elektrizitatearen merkatu iberiarra abian jarri zenetik izandako preziorik handiena. Orduetik, hainbat aldiz gainditu da balio hori, eta 2021eko irailaren 13koa izan da azkenekoz erregistratu den preziorik handiena (eguneko 154,16 €/MWh batez beste). Uztailan eta abuztuan, batez besteko prezioa 92,42 €/MWh eta 105,94 €/MWh izan da, hurrenez hurren, eta, beraz, elektrizitatearen handizkako prezioa % 250 baino gehiago igo da 2021eko otsailetik (urteko preziorik baxuena ordukoa da).

Horiek horrela, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriek aldi berean erantzun nahi diete energia-merkatuetan bizitzen ari den egoera larri eta apartekoaren alderdi sozialari eta ekonomikoari. Norabide berean doaz neurri guztiak: elektrizitatearen prezioen bat-bateko hazkundera leuntzea, gorakada horren ondorioz kontsumitzaileek —batez ere energia-kalteberatasun handieneko egoeran daudenek—, kasu askotan, nekez ordaindu dezaketelako elektrizitate-faktura.

Neurrien helburua da elektrizitatearen prezioa igotzeak ekonomiaren gainerako sektoreetan duen eragina geldiaraztea berehala, kontsumoko prezioen indizearen azken datuetan islatzen ari baita dagoeneko eta kontsumitzaileek erosteko ahalmen txikiagoa izatea eta industriak eta zerbitzuen sektoreak lehiakortasuna galtzea eragiten ari baita. Egungo egoera datozen hilabeteetan luzatzen bada, hari aurre egiteko bidea emango

dute neurriok; izan ere, litekeena da elektrizitatearen eskariak gora egitea neguko hilabeteetan, une horretan energiak erabateko ondorioak sortuko ditu-eta etxeko ekonomien funtsezko ondasun gisa.

Gas naturalak bilakaera bat-bateko eta aurrekaririk gabea izan du, eta horrek eragin oso negatiboa izan du ekonomian, noiz eta COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiaren ondoren ekonomia suspertzeko bideari ekin zaionean. Horrek susperraldia moteltzeko arriskua dakar.

Azaldutako egoerak arriskuan jartzen du orobat ekonomiaren deskarbonizazio-helburuak betetzea. Espainiako Erresumak helburu horiek betetzeko konpromisoa hartu du Europar Batasunaren testuinguruan, eta «Energiaren eta Klimaren 2021-2030eko aldirako Plan Nazional Integratua»n eta «2050ean Espainiako Ekonomia Modernoa, Lehiakorra eta Klimatikoki Neutroa izateko Epe Luzeko Estrategia»n jaso ditu helburuok. Deskarbonizazio-helburuak arriskuan daude, hain zuzen ere, berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzeko helburuak lortuko badira energiaren azken erabileren elektrifikazio-maila handitu behar delako, horri esker eta oraintsu «mix» elektrikoan berriztagarriak integratzeari esker erdietsiko baita klima-neutraltasuna 2050ean. Hori guztia dela eta, elektrizitatearen prezio-seinalea neurritzkoa eta arrazoizkoa izatea funtsezkoa da elektrifikazio-prozesua bizkortzeko. Horrela, garraiobide elektrifikatuak erabilera sustatzen da eta lehen mailako energia-iturri gisa elektrizitatea erabiltzen duten industria-prozesuen lehiakortasuna hobetzen da, eta, ondorioz, erregai kutsatzaileenak «mix» energetikotik kanpo geratzen dira eta Estatuko karbono-aztarna gutxitzen da.

II

Elektrizitatearen prezioak igotzearen alderdi kezkarrienetako bat zera da, kontsumitzaile kalteberenengan duen eragina. Horiek horrela, Pobrezia Energetikoaren aurkako 2019-2024ko aldirako Estrategia Nazionalak ezartzen zuenez, tresna osagarriak jarri behar dira kalteberatasun-egoeran dauden energia elektrikoaren kontsumitzaileak babesteko. Proposamen hori are garrantzitsuagoa da gaur egungo testuinguruan, elektrizitatearen prezioak ikusita eta kontuan izanda COVID-19aren pandemiak 2020an eragindako egoerak, oro har, familiek erosteko ahalmena galtzea ekarri duela.

Zehazki, Pobrezia Energetikoaren aurkako 2019-2014ko aldirako Estrategia Nazionalak adierazten zuen familiak pobrezia energetikoaren ondorioetatik babestu beharra zegoela, eta hornidura elektrikorako eskubidea bermatu behar zitzaie kontsumitzaile kaltebera guztiei, bizitzeko gutxieneko horniduraren bitartez, haien hornidura erabat deskonektatzea ekiditeko.

Beraz, errege lege-dekretu honen bidez, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean 45 bis artikulua eransten da eta 52. artikuluan 3. apartatua aldatzen, bizitzeko gutxieneko hornidura ezartzeko, elektrizitatearen gizarte-bonua jasotzen duten kontsumitzaile kalteberak babesteko neurri gisa. Hala, egungo araudiak kontsumitzaile kalteberei elektrizitate-faktura ordaintzeko ematen dien lau hilabeteko epea, zeinean ezin baitzaie hornidura eten, beste sei hilabetez luzatzen da; denbora horretan, gutxieneko erosotasun-baldintzak bermatzen dizkien potentzia bat ezarriko zaie neurri hori aplikatzen zaie familiei. Horrela, bada, energia-kalteberatasuneko egoeran dauden kontsumitzaileen babes-eremua zabaltzen da berriz ere, hornidura eten dadin eskatzeko prozedura abiarazteko epea luzatzen delako, eta, hortaz, erantzuna ematen zaiolako Pobrezia Energetikoaren aurkako 2019-2024ko aldirako Estrategia Nazionalen ezartzen den mandatuari.

Lege-mailako erreforma hori osatzeko, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua aldatzen da (Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen), hartara erregelamendu bidezko garapena berehala egokitu ahal izan dadin lege-mailako aldaketetara.

III

Horrez gain, elektrizitate-fakturaren kostuak gutxitzeko zenbait neurri txertatzen dira errege lege-dekretu honen bidez.

Lehenengo eta behin, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etetea beste hiruhileko batez luzatzen da.

Ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez (12/2021 Errege Lege Dekretua, ekainaren 24koa, Energia-fiskalitatearen arloan eta energia sortzearen arloan premiazko neurriak hartzen dituen, eta ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona kudeatzen dituen), energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etetea ezarri zen 2021eko hirugarren hiruhilekorako; izan ere, elektrizitatearen prezioen bilakaerak —orduan ere hautematen baitzen— aukera ematen zuen neurri hori ezartzeko sistema elektrikoaren jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioari kalte egin gabe.

Kontuan izanda elektrizitatearen handizkako prezioen egoera larriagotu baino ez dela egin, komeni da neurria urteko azken hiruhilekora ere luzatzea, halako moldez non, laburbilduz, zerga hori 2021eko ekitaldiko bigarren seihileko osoan geratuko baita etenda.

Ekoizleak behartuta daude zerga hori ordaintzera, eta, beraz, hura ordaintzetik salbuesten badituzte, prezio lehiakorragoak eskaini ahal izango dituzte, kostu operatiboetako bat gutxituko baita, eta hori onuragarria izango da kontsumitzaileentzat.

Aldi baterako etete hori, diru-sarreraren eta kostuen kalkulu onenen arabera, bateragarria da sistema elektrikoaren 2021eko ekitaldia orekari eutsiz ixtearekin, abenduaren 26ko 24/2013 Legean ezarritako jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioaren printzipioa errespetatuz.

Halaber, elektrizitatearen prezioak igotzearen ondoriozko egoerari erantzuteko, gutxitu egiten da elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga-tasa, Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legeak araututakoa; % 5,11269632etik % 0,5era gutxitzen da, salbuespenez eta aldi baterako, 2021eko abenduaren 31ra arte.

Zeharkako zerga hori elektrizitate-kontsumoari aplikatzen zaio, eta, Europar Batasunean, 2003/96/EE Zuzentarauaren manuekin bat harmonizatuta dago (2003/96/EE Zuzentaria, Kontseiluarena, 2003ko urriaren 27koa, Energia- eta elektrizitate-produktuak ezartzeari buruzko Batasunaren erregimena berregituratzen duena). Zuzentaria horren arabera, gutxieneko zerga-tasak ezin dira izan megawatt orduko 0,5 eurotik beherakoak elektrizitatea helburu profesionaletarako erabiltzen denean, eta megawatt orduko 1 eurotik beherakoak gainerako kasuetan.

Horrenbestez, baldin eta, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga-oinarriaren gainean 0,5eko zerga-tasa aplikatzearen ondorioz, tributazio efektiboa hornitutako edo kontsumitutako megawatt orduko 1 eurotik beherakoa bada, zerga horrengatik ordaindu beharreko zenbatekoa ezingo da izan diru kopuru hori baino txikiagoa.

Erabilera industrialetan hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatearen kasuan —halakotzat hartuko dira goi-tentsioan edo instalazio industrialetan gauzatzen diren erabilerak, baita behe-tentsioan gauzatzen eta nekazaritzako lurak ureztatzea bideratzen direnak ere—, edo portuan atrakatuta dauden baina aisiako ontzi pribatuak ez diren ontzietan edo trenbideko garraioan hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatearen kasuan, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga-oinarriaren gainean 0,5eko zerga-tasa aplikatzearen emaitza ezingo da izan hornitutako edo kontsumitutako megawatt orduko 0,5 eurotik beherakoa.

Erredukzio kimikoko prozesuetan, prozesu elektrolitiko, metalurgiko edo mineralogikoetan eta industria-jardueretan hornitutako edo kontsumitutako energiari, energia horren balioa fabrikatutako produktuaren % 50etik gorakoa bada, 2003/96/EE Zuzentariako xedapenekin bat, ez zaizkio aplikatuko aipatu diren gutxieneko zergapetze-mailak.

Halaber, handitu egin da berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen zenbatekoa, zeina erabiliko baita abenduaren 26ko 24/2013 Legeak ezartzen dituen sistema elektrikoaren kostuak finantzatzeko (berriztagarriak sustatzekoak, hain zuzen).

Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, ehun eta hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian, eskubide horien zenbatekoa 1.100 milioi euro izango zela ezarri zuen, baina CO₂-a isurtzeko eskubideen kotizazioa handitzearen ondorioz diru-sarrerek gora egin zuten, egokitzat jo da gehieneko zenbateko hori 2.000 milioi eurora igotzea, eta diru hori erabiltzea sistema elektrikoaren zordunketak automatikoki gutxitzeko.

IV

Bestalde, energiaren eperako kontratazioa sustatzen da, kontsumitzaile guztiei onura ekar diezaieketen merkatu-tresnen bidez.

Merkatuetako prezio handiek luze irauteak merkatuaren funtzionamenduan izan ditzakeen ondorioek arriskuan jartzen dute bertikalki integratuta ez dauden enpresen merkaturatzaileen bideragarritasuna. Izan ere, horientzat zaila izaten da eperako merkatuetan estaldura lortzea, Espainiako eperako merkatuak likidezia txikia baitu Europako beste merkatu batzuen aldean, ez duelako enpresa bertikalki integratuei sorkuntzak ematen dien estaldura naturalik. Prezio altuek luze dirauten honetan, estaldura lortzeko zailtasun hori asimetrikoa da integrazio bertikalak ematen duen estaldura naturala duten merkaturatzaileengan eta halakorik ez dutenengan, eta zaildu egin lezake enpresa bertikalki integratuen eta bertikalki integratuta ez dauden enpresen arteko lehia txikizkako merkatuan.

Eperako merkatuen likidezia eta gardentasuna funtsezkoak dira elektrizitatearen handizkako merkatuen funtzionamendu egokirako. Izan ere, eragina dute eperako prezioen eraketa egokian, eta orobat dakarte agente gehiago erakartzea merkatu horietan parte har dezaten; elkarren kontrako posizioak eta arrisku-profil desberdinak dituzte agente horiek, eta posizioak errazago ireki eta itxi ditzakete.

Epe likidoko merkatu batean, merkatuan parte hartzen dutenek prezioen erreferentziak dituzte, eta horrek aukera ematen die etorkizuneko prezioei buruzko norik bere usteak izateko. Horiek horrela, parte-hartzaileek zehaztasun handiagoz ebalua dezakete merkatuko prezioa, eta horren arabera negoziatu. Aitzitik, eperako merkatuak likidezirik ez duenean, zailagoa izaten da prezioen berri izaten, eta horrek eperako kontratuen arrisku-prima handitzea eragin dezake. Era berean, arrisku-primak handiagoak izatearen ondorioz, agenteek merkatuan gehiago parte hartzeko pizgarria gal dezakete, eta horrek merkatuko likidezia are gehiago gutxitzea dakar; hala, etengabeko soka sortzen da, merkatuan parte hartzen dutenek kostu eta arrisku handiagoa jasatea eragingo duena.

Espainiako eperako merkatuaren likideziak azken bi urteetan bilakaera positiboa izan duen arren, 2013an erregistratutakoa baino nabarmen txikiagoa da oraindik ere (urte horretan, negoziazio-bolumena inoizko handiena izan zen, hain zuzen ere elektrizitate-eskariaren % 150), eta Europako eperako beste merkatu batzuetakoa —Alemaniakoa eta Frantziakoa, kasu— baino askoz txikiagoa da oraindik.

Aurreko egoerak, handizkako merkatuetako prezioak igotzearen ondorioz larriagotua, ondorio negatiboak ditu merkatuan parte hartzen dutenentzat; izan ere, prezio- eta kantitate-arriskuak epera estaltzeko agenteek dituzten aukerak mugatzen ditu, eta eskurako merkatuaren aldakortasun gero eta handiagoaren eraginpean uzten ditu. Eskaintzaren ikuspegitik, eperako merkatuaren likidezia eskasak mugatu egiten du merkatuan ordainsari-araubide arauturik gabeko proiektu berriztagarriak gauzatzeko aukera, haren eraginez gehitu egiten direlako proiektuen finantzaketa-kostuak, proiektuok bideraezin bihurtzeraino, batez ere sustatzaile txikientzat. Egoera horrek eragin negatiboa du merkatuko lehian, hala handizkako nola txikizkako merkatuan operadore berriak sartzea mugatzen duelako.

Eskariaren ikuspegitik, merkaturatzaile independenteek eta kontsumitzaile handiek, industrialari elektroi-intentsiboek barne, aukera gutxiago dute energia-bolumen handia hiruhilekotik gorako epera eskuratzeko prima handirik ordaindu gabe, eta horrek modu negatiboan baldintzatzen ditu beren inbertsio-erabakiak eta negozio-planak, beren

energia-kostuak gehitzeko arriskua dagoelako eta ez dutelako horri aurre egiteko estaldura egokirik. Kontsumitzaile txikiek, batez ere kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa ordaindu behar dutenek, eguneko eskurako merkatuaren aldakortasunaren eraginpean daudenez, prezioen gorakada handi eta etengabeei aurre egin behar izaten diete egoera jakin batzuetan, azken hilabetekoa kasu, eta ziurgabetasun handia dago mota horretako kontsumitzaileek etorkizunean ordaindu beharko duten prezioaren inguruan.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako handizkako merkatuaren ikuskapen- eta jarraipen-txostenen arabera, Espainiako eperako merkatuen likidezia eskasean gehien eragiten duten faktoreetako bat da talde bertikalki integratuek ez dutela pizgarri nahikorik eperako merkatuetan parte hartzeko, eguneko merkatuko prezioaren arriskuaren gaineko estaldura naturala dutelako eta hura baliatzen dutelako talde barruko aldebiko kontratuen bidez.

Hori ez da arazo, berez, kasuan kasuko taldeak merkatu-kuota handirik ez badu. Aitzitik, kuota nahikoa handia duten talde bertikalki integratuak badaude, elkarri estu lotutako premiak dituzten sortze- eta merkaturatze-negozioen jabe direnak eta oinarritzko ekoizpen-bolumen egonkorra bermatuta duten teknologia inframarjinalak dituztenak, horrek oztopatu dezake beste merkaturatzaile ez-integratu batzuk txikizkako merkatura sartzea, ez baitute izango handizkako merkaturan epera kontratatzeke erraztasunik, are gutxiago teknologia horien kostuan. Talde bertikalki integratuek ez badute pizgarririk eperako merkatuetan parte hartzeko, horrek kalte egin diezaioke eperako merkatuaren likideziari, eta gutxitu egin daitezke agente txikiek eta kontsumitzaileek behar duten estaldura prezio lehiakorak dituzten eperako kontratuen bidez lortzeko aukerak.

Egungo salbuespenezko egoeran, merkatuaren egitura zein den ikusita eta kontuan hartuta eperako merkatuek ez dutela likideziarik, beharrezkoa da merkaturatze-jarduera duten enpresen sarbidea ahalbidetzen eta haien garapena bultzatzen duen tresna bat ezartzea, txikizkako merkatuko lehia sustatzeko, hartara azken kontsumitzaileari prezio hobek bermatze aldera.

Merkatuan parte-hartzaile berriak sar daitezzen sustatzeko edo merkaturatzaile txikien posizioa indartzeko mekanismoa dira epera kontratatzea bultzatzeko tresnak (energia epe luzera erosteko kontratu-enkanteak, bereziki), eta, hortaz, tresna horiek diseinatzearen helburua izan daiteke sarbidea ematea CO₂-rik isurtzen ez duten Espainiako merkatuko sorkuntza inframarjinalako teknologiek eskaintzen duten oinarri-sorkuntzari.

Enkante horien bidez, eskari-profileko eragileen esku jartzen da CO₂-rik isurtzea ez dakarren sorkuntza inframarjinal kudeagarriaren zati bat, aurrez ezarritako indarraldi batez, eperako kontratu espezifikokoak baliatuz. Enkantera zer motatako energia aterako den zehazteko, irizpide tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoei jarraitzen zaie, horien arabera jokatz gero aukera gehiago dagoelakoan konprometitutako energiak neurritzko prezioari irmo eustea bermatzeko. Nolanahi ere, ez zaie inola ere garrantziarik kenduko energia-politikaren printzipio gidariei, ekonomia deskarbonizatzeke egungo bidean nagusi izan behar dute eta.

Errege lege-dekretu honen 3. artikulua bidez xedatzen da energia epera erosteko kontratuen enkanteen egutegi bat onartuko duela Gobernuak. Halaber, enkante horien funtsezko alderdiak arautzen dira, eta lehen enkantea urtea amaitu aurretik egiteko agintzen da. Sorkuntzan gailentzen diren operadoreak izango dira saltzaile, eta erosle izan ahalgo dira, berriz, bai merkaturatzaileak, baldin eta sektore publikoan oinarritzko operadorea den enpresa nagusia duen enpresa-talde bateko kide ez badira eta elektrizitate arloan bezero-zorroa badute, bai merkatuko kontsumitzaile zuzenak (kontsumitzaile handiak), bai horien ordezkariak.

Erreferentziako merkaturatzaileek ere erosle gisa parte hartu ahal izango dute, behin kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa (KTBP) kalkulatzeko formula eguneratuta mekanismo honi lotzeko moduan.

Erregulazio honek eperako merkatuetako likidezia eta lehia hobetzen lagunduko du, eta estaldura lortzea erraztuko die hala orain arteko parte-hartzaileei nola sartzen diren

berriei. Ikusita handizkako merkatuko prezioak handiak direla eta kontuan hartuta zer ondorio dituen horrek etxeko kontsumitzaileengan eta merkataritza- eta industria-kontsumitzaileengan bizi berri dugun pandemiaren ondoko susperraldi ekonomikoko egoera honetan, justifikatuta dago neurrien aparteko eta presazko beharrezana, bai eta neurriok errege lege-dekretu baten bidez ezartzea ere.

Erregulazio hau lortu nahi den xedearen arabera eta haren neurrikoa da; izan ere, esku-hartze handiagoa dakarten beste aukera batzuen aldean —sorkuntza-aktiboak saltzera behartzea, kasu—, modu eraginkorragoan eta efizienteagoan betetzen ditu ezarritako helburuak. Gainera, merkatu-mekanismo gisa taxutzen da tresna hau, prezio lehiakorrek ezartzea bermatzen duten enkanteen bidez, eta horrek proportzionaltasun-printzipioa betetzen laguntzen du.

V

Onartu diren neurrietako beste bat zera da, mekanismo bat ezartzea merkatuaren funtzionamendu marjinalistaren ondorioz instalazio jakin batzuk jasotzen ari diren gehiegizko ordainsaria gutxitzeko.

Isurketa-eskubideen kotizazioak Europako merkatuan izan duen bilakaeraren ondorioz, 60 €/ton-eko balioak lortu dira, baita % 120ko gorakadak ere duela urtebeteko balioarekin alderatuta. Bestalde, «hub» nazional eta nazioartekoetan, gas naturalaren goranzko kotizazioak inoiz ez bezalako hazkundera izan du: gasaren merkatu iberiarrean —MIBGASek kudeatzen du—, gas spot-ak balantzeko puntu birtualean duen kotizazio-prezioak 60 €/MWh gainditu berri du (urteko preziorik baxuenak, 15 €/MWh inguru, otsailean erregistratu ziren; beraz, ia % 300eko hazkundera izan du urtebetean).

Gas naturalaren prezioa erabakigarria da merkatuaren eguneroko prezioa zehazteko, haren eragina biderkatzailea baita (gasa 1 €/MWh igotzeak elektrizitatearen 2 €/MWh-ko hazkundera dakar, gutxi gorabehera). CO₂-aren prezioak, aldiz, eragin txikiagoa du elektrizitatearen prezioan (CO₂-aren prezioa 1 €/tCO₂ igotzeak elektrizitatearen prezioa 0,37 €/MWh haztea dakar, ziklo konbinatuaren isurketa-faktore espezifikorekin eraginez).

Egoera horretan, gainera, Europako araudiak zehazten duen merkatu marjinalistako eredu aplikatzen. Eredu horren arabera, ordu berean funtzionatzen ari diren ekoizpen-instalazio guztiei prezio bera ezartzen zaie, hain zuzen ere ordu horretako eskariari erantzuteko kasazioaren xede izan den azken instalazioak eskaintakoa. Diseinu marjinalista horri esker, besteak beste, funtzionatzen dute aipatu ditugun prezio-seinaleek eta kanpo-efektuek; izan ere, instalazio garbienek eta, oro har, lehiakorrenek diru-sarrera handiagoak jasotzen dituzte, eta horrek sustatzen du mota horretako instalazioak ezartzea eta merkatuan sartzea, kutsatzaileagoak eta oro har ez hain lehiakorrek diren beste batzuen ordez.

Hala ere, gas naturalaren kotizazioaren eta antzeko aldagaien mende dauden sorkuntza-zentralak behin betiko alde batera uzten ez diren bitartean, prezio-seinalea isurketarik egiten ez duten teknologiek merkatuko dute, izan zuzenean, izan zeharka, beste teknologia batzuen aukera-kostua dela medio.

Horiek horrela, agerikoa da isurketarik egiten ez duten instalazio inframarjinalen sorkuntza-kosten eta etekinen arteko diferentziala. Eta, nahiz eta egoera hori azaldu dugun merkatuaren diseinu marjinalistaren berezko emaitza den, ezinbestekoa da tresna arautzaileak ezartzea, lehengaien merkatuetan salbuespenezko inguruabarrak daudenean aldi baterako mugatu ditzaten instalazio horiek jasotzen dituzten gehiegizko ordainsariak, kontsumitzaile guztiei kalte egiten diete eta.

CO₂-ari dagokionez, isurtzen ez den CO₂-agatik elektrizitate-merkatuari aplikatzen zaion ordainsariari buruzko lege-proiektua izapidetzen ari dira une honetan Legebiltzarrean. Haren helburua da isurketarik egiten ez duten instalazioei gehiegizko ordainsaria gutxitzea, baldin eta isurketa-eskubideen Europako merkatua eratu baino lehenago —2003a baino lehenago— inbertsioa egitea erabaki zuten instalazioak badira eta, beraz, une horretan merkatua eratzearen ondoriozko aparteko etekinak aurreikusterik izan ez bazuten; instalazio horiek, gaur egun, CO₂-aren dibidendua

jasotzen dute, alegia, isurketarik egiten ez duten instalazio inframarjinalak eskuratzen duten gehiegizko ordainsaria.

Gasak nazioarteko merkatuetan duen egoera, funtsean, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekaren ondorio da; izan ere, uste baino azkarragoa izan da suspertze globala, eta ekoizpen-mailak ez dira erritmo berean hazi. Aipatutako energia-produktua negoziatzeko nazioarteko parket nagusietan gasaren gerokoek duten kotizazioak berretsi egiten du balorazio hori. Izan ere, kotizazio-balioak azken urteetako antzekoak dira batez beste, eta, beraz, ikuspuntu arautzailetik, alderdi horri dagokionez hartu beharreko neurriak aldi baterakoa izan behar du, proposatu den gutxitze-tresnaren kalkulu-eskemak eta CO₂-a gutxitzeko sortutako tresnaren antz handia badute ere.

Horretarako, isurketarik egiten ez duten zentral inframarjinalen ordainsariaren gutxitzea arautzen da; gasaren merkatu iberiarrean gas naturalak duen prezioaren kotizazioaren balioaren proportzional izango da gutxitzearen zenbatekoa. Gainera, isurketarik egiten ez duten Penintsulako zentrali soilik gutxituko zaie ordainsaria; kanpoan geratzen dira berariazko ordainsari-araubidea jasotzen duten instalazioak (berriztagarriak, kogenerazioa eta hondakinak).

Era berean, instalazio txikiak ere kanpoan uzten dira (<10 MW), ahalmen ekonomikoko arrazoiengatik, kostu finko handiak eta errentagarritasun txikiagoa izaten baitira instalazio txikien berezko ezaugarriak.

Bestalde, tresna hau 2022ko martxoaren 31ra arte baino ez da aplikatuko, espero izatekoa baita ordurako azken urteetako batez besteko balioetara itzultzea aipatutako hidrokarburoaren kotizazioa. Are gehiago, gutxitze-tresnak zoru bat ezartzen dio gasaren prezioari, eta hartatik aurrera aplikatzen da 20 €/MWh-ko neurria. Balio hori bat dator gutxi gorabehera gasaren merkatu iberiarrak (MIBGAS) abian jarri zenetik (2017) izan duen batez besteko prezioarekin, eta, hartara, erregaiaren prezioa atalase horren azpitik badago, ordainsariaren gutxitzea baliorik gabe geratuko da.

Mekanismo hori aplikatuko zaio kontuan hartutako likidazio-aldian eraginpeko instalazioek ekoitzi duten energia kopuru osoagatik jasotako ordainsariari, zentralako barratan neurtuta, edozein dela ere erabilitako kontratazio-modalitatea. Hau da, eguneko merkatutik kanpo aldebiko kontratuen bidez saldutako energia ere gutxituko da, energia horrek internalizatzen baitu hura eguneko merkatuan —zeinean gas naturalaren kostua internalizatzen baita— saltzearen aukera-kostua.

Ondorio horietarako, ordu bakoitzean merkatuko prezio marjinala markatu duten zentralen inguruan Merkatuko Operadoreak (OMIE) emandako informazioa kontuan hartuta, kalkulatu da zein den gas naturalaren hileko batez besteko internalizazio-maila handizkako merkatuko prezioan. Horretarako, gas naturalaren ziklo konbinatuaren batez besteko errendimendu bat ezartzen da, gas naturalaren prezioaren internalizazio-mailaren erreferentzia gisa balioko duena.

Prezio marjinala ziklo konbinatua ez den beste teknologia batek markatu duen orduetan, eskaintzak ziklo konbinatuko zentralen isurketa-kostua internalizatu duela joko da, baldin eta teknologia horretako zentralik badago energia-kasazioarenaren inguruko prezioan eskaini duena (± 10). Aurreko eragiketaren bidez, gas naturalaren batez besteko internalizazio-faktorea lortuko da.

α faktorea kontuan hartuta, proportzionaltasun-elementu bat sartu nahi da ezarritako neurrian. α -ren balioa 1 ez bestelakoa bada, ez da guztiz kentzen aipatutako teknologiek, gas naturalaren kostua internalizatzearen ondorioz, jasotzen duten prezio-seinalea. CO₂-a gutxitzeko tresnan bezala, 0,9ko balioa ematen zaio koefiziente horri.

Azkenik, zentral bakoitzaren ordainsari-gutxitzea kalkulatzeko, zentralaren hileko ekoizpena —zentraleko barratan— batez besteko kostu doitu horrekin biderkatuko da. Ondoren, zenbatekoak jakinaraziko zaizkie zentrali, eta gehienez ere hilabeteko epean ordaindu beharko dituzte, likidazioa jakinarazi denetik aurrera.

Amaitzeko, kontuan hartuta zer diru-sarrerara gehigarri dituen sistema elektrikoak errege lege-dekretu honetan onartutako neurrien ondorioz (nagusiki, gas naturalaren gehiegizko ordainsaria gutxitzeko tresna eta orobat enkantean jarri diren CO₂-a isurtzeko eskubideei dagozkien diru-sarrerara gehigarriak), hirugarren xedapen gehigarriak sistema

elektrikoaren zordunketen eguneratze berezi bat ezartzen du, testu arautzaile hau indarrean jartzen denetik hasi eta 2021eko abenduaren 31ra arte bakarrik aplikatzekoa izango dena.

Zordunketak eguneratzean, Sistema Elektrikoaren Zordunketak Kalkulatzeko Metodologia ezartzen duen martxoaren 9ko 148/2021 Errege Dekretuan ezarritako metodologiari jarraitu zaio.

VI

Klima-aldaketak, tenperaturen igoerak, euri-patroien aldaketak eta, laburbilduz, iragarpenen arabera epe ertain eta luzera ur gutxiago eskuragarri izateak eragina izango dute arro hidrografiko guztietako ur-erabileretan. Horrek, jakina, ondorioak izan behar ditu gero eta urriagoa den baliabide honen ustiapen- eta aprobetxamendu-eskubideak baliatzeko baldintzetan; eskubideok berezko eta berariazko araubide juridikoa dute, ura jabari publikoko baliabidea da eta.

Horregatik, erreforma honek, zeina IV. tituluan jasotzen baita, ur-baliabideen erabilera arrazionalerako irizpideak zehazten ditu uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 55.2 artikuluan, bermatzeko ustiapenaren errealitateari erantzuten zaiola egungo mugekin, zeinen artean nabarmentzen baitira klima-aldaketaren ondorioen inguruko aurreikuspenak eta Espainian ur gutxiago eskuragarri egotearen ingurukoak (eskuragarritasuna % 15 gutxituko da epe ertainera, eta % 35 eta % 40 bitartean epe luzera).

Ur-baliabideen erabilera arrazionalerako irizpideak zehaztea beharrezkoa da azaleko ur-masak behar bezala babesteko, plangintza eta kudeaketa egokiaren bidez, are gehiago ur-masa horiekin erlazionatuta dauden ibai-tarteetan, horietan ur-aprobetxamenduko maila handia eta ekosistema-balio eta -zerbitzu ugariko ibilguak uztartzen baitira. Erreforma honek gizartean eta ingurumenean eragina duenez, halabeharrez eman behar dira hura gauzatzeko jarraibideak, beharrezkoak baitira erabiltzaileek eta herritarrek ziurtasun handiagoa izan dezaten uraren kudeaketaren inguruan, baliabide hori ziurrenik urriagoa izango delako 2022an onartzekoa den plangintza hidrologikoaren hirugarren ziklorako trantsizioan gauden honetan.

Plan hidrologiko berri horietan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauan ezarritako ingurumen-helburuak 2027an lortzea ahalbidetuko duten neurriak eta tresnak jaso beharko dira —Uraren Esparru Zuzentaru esaten zaio zuzentaru horri, eta uren politikaren eremuan jarduteko Erkidegoko esparrua ezartzen du—, eta orobat errege lege-dekretu honek ezartzen duen erreformaren berri emango da.

Gainera, Uraren Esparru Zuzentaruak, zeinean ura baliabide naturala eta ingurumen-elementua dela azpimarratzen baita, tresna egokia da Erkidegoko uren babesa hobetzeko alderdi kualitatibo eta kuantitatiboetara dagokienez, eta, haren bidez, uraren erabilera jasangarria sustatu nahi da, Zuzentaruaren arabera baliabide urria eta kaltebera da eta.

Era berean, lortu nahi da jabari publiko hidraulikoaren erabiltzaileek, batez ere emakida-araubidean daudenek —haien aprobetxamenduak interes orokorraren mende baitaude—, beren jarduerekin jarrai dezaten, aldi baterako neurriak hartu behar badira ere. Neurriok ingurumenean eta gizartean ere izango dute eragina. Eskubideak baliatzeko ziurtasun eta segurtasun juridikoaren printzipioari jarraituz egin da erreforma; izan ere, eskubideak «ahalmen indibidualen sorta» bat dira, baina baita «legean arabera eta Erkidegoaren balioak edo interesak kontuan hartuta ezarritako eskubide eta betebeharren multzo» bat ere (Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 204/2004, azaroaren 18koa, 5. oinarri juridikoa, eta 154/2015, 4. oinarri juridikoa).

Konstituzioaren 45.2 artikulua botere publikoak behartzen ditu «baliabide natural guztien erabilera arrazionala zaintzera, bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta berrizatzeko, behar-beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz». Eta Konstituzio Auzitegiak uraren gaineko aprobetxamendu-eskubide

indibidualei buruz adierazi duenez, «eskubide horiek oro har arautzean, ezin zaio erreparatu eskubide horien erabiltzaileen edo titularren interes indibidualari bakarrik; aitzitik, eskubidea aplikatzen zaion ondasunaren izaera publikoari datzekion interes orokorra ere kontuan hartu behar da». Hortaz, Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 26ko 37/1987 Epaia doktrinari jarraituz, «funtsezko edukia ezin da ezarri kasuan kasuko ondare-eskubidearen azpian dagoen "eskubide edo interes indibidualen kontsiderazio subjektiboan soilik oinarrituta"; eskubidea bera osatzen duen dimentsio soziala edo norbanakoaz gaidikoa ere jaso behar ditu» (Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia, azaroaren 29koa, 11. oinarri juridikoa). Horrenbestez, erreforma honen printzipio gidaria da ura gizartean eragin oso handia duen ingurumen-ondasuntzat eta babestu beharreko ondasuntzat hartzea.

Klima-aldaketaren eta ur-eskuragarritasuna gutxitzearen ondoriozko joerei —lehen zehaztutakoei— dagokienez, bada beste gai bat gizartean kezka handia eragin duena: uraren erabilera energia elektrikoaren ekoizpenean. Helburua da bermatzea administrazio hidraulikoaren eta emakidadunaren arteko harremana arautzen duten emakida-klausulak bateragarriak direla uraren antolamenduaren irizpide gidariarekin. Horretarako, ura, energia-ekoizpenerako baliabide ekonomikotzat ez ezik, gizartean lehentasunezko eragina duen lehen mailako ingurumen-baliabidetzat ere hartuko da.

Ondorioz, indarrean dagoen Uren Legearen testu bateginak 55.2 artikuluan (29/1985 Legearen 53. artikulutik eratorria) ezartzen duen araubidea aplikatzeko irizpideak behar ditu erreforma honek, araubidea klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko, eta, azken batean, ingurumenaren mesederako eta uraren erabiltzaile guztien onurarako.

Testuinguru horretan, erreformak aurreikusten du ezen, 50 hm³ baino gehiagoko edukiera duten eta erabilera nagusitzat hornikuntza, ureztapena eta nekazaritzako eta abeltzaintzako beste erabilera batzuk ez dituzten urtegietarako, arroko erakundeak aldagai hidrogikoko jakin batzuk zehaztuko dituela, urte hidrogikoko bakoitzaren hasieran, hala badagokio bildutako uraren erreserbari eta sasoiko aurreikuspenei erreparatuta.

Zehazki, ustiapen arrazional hori ziurtatzeko, normaltasun hidrogikoko egoeretan eta luzaroko lehortekoetan hilabetean batez beste hustu beharreko gutxieneko eta gehieneko emarien araubidea ezarriko da, baita hilabete bakoitzerako bildutako erreserben gutxieneko bolumenen araubidea ere.

Era berean, hileko gutxieneko erreserba zehaztuko da, eta erreserba horrek urtegiaren biltegitratuta egon beharko du, nahi ez den ingurumen-ondoriorik eragin ez dadin urtegiako eta urtegiari lotutako ur-masetako faunan eta floran.

Berrikuntza gisa, nabarmendu behar da ahalegina egingo dela ustiapen arrazionala bateragarria izan dadin urtegi-ertzeko udalerrien dinamizaziorako jarduera ekonomiko jasagarriak egitearekin, betiere kasuan-kasuan dagokion arroko plan hidrogikokoan ezartzen den erabileren lehentasun-ordenaren esparruan.

Bestalde, 2021-2022ko urte hidrogikokoan neurri horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, aurreikusten da arroko erakundeek txosten arrazoitu bat bidaliko diotela Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Uraren Zuzendaritza Nagusiari, 2021eko abenduaren 31 baino lehen; txosten horretan, erreforma honek txertatzen dituen ustiapen arrazionalerako neurriak aplikatu zaizkien urtegiaren zerrenda jasoko da.

Erreforma hau errege lege-dekretu baten bidez egiteko aparteko eta presazko beharrezko dagoela justifikatzeko, esan beharra dago, uraren eskuragarritasunaren ikuspegitik, datuek agerian uzten dutela 1980 ezkeroko sail hidrogikokoan (1980/81-2017/18) egindako ekarpenak gutxitu egin direla aurreko berrogei urteetako sailekoekin alderatuta (1940/41-1979/80); hain zuzen ere, Espainia osoko ekarpenak % 11 gutxitu dira batez beste, baina arro jakin batzuetan, Tajokoan edo Guadianakoan kasu, % 22ra iritsi da gutxitzea.

Bestalde, klima-ereduetan jasotzen diren etorkizuneko egoeren inguruko aurreikuspenek berretsi egiten dituzte beheranzko joerok. CEDEXek eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak egindako lanen arabera, Espainia osoan ur-

eskuragarritasunaren batez besteko gutxitzea % 6 ingurukoa izango da 2030erako, eta % 12 ingurukoa 2050erako. Hala ere, zifra horiek handiagoak izango dira Penintsulako zenbait arrotan (% 9 eta % 16, hurrenez hurren) eta Balear Uharteetan (% 13 eta % 20).

2020-2021ko urte hidrologikoari dagokionez, 2021eko irailaren hasieran argitaratutako azken datuek adierazten dutenez, isurialde atlantikoko arro hidrografikoetan bildutako ur-erreserba 16.114 hm³-koa da, hau da, 2020ko abuztuko erreserba (19.505 hm³) eta arro horietan azken hamar urtean izan den batez besteko erreserba (23.726 hm³) baino txikiagoa. Beherakada izan da, halaber, arro mediterraneoetan ere: erreserba 8.095 hm³-tik (2020ko datua) 7.218 hm³-ra (2021eko iraila) jaitsi da. Nolanahi ere, azken zifra hori ez dago azken hamar urteetako batezbestekotik urrun (7.272 hm³).

Datu horiei erreparatuta eta kontuan hartuta AEMET Meteorologiako Estatu Agentziak 2021eko irail, urri eta azarorako egin duen Espainiako prezipitazioen iragarpena, zeinaren arabera probabilitate handiagoa baitago prezipitazioak beheko tertzelean egoteko isurialde atlantikoan eta Kanarietan, komeni da erreforma presaz abiaraztea.

Era berean, presa zuhertasun-printzipioan oinarritzen da; izan ere, helburua da urtegiatako ur-erreserbak luze gabe babestea, azaldu berri dugun egoera hidrologiko eta plubiometrikoaren ondorioz berehala abiarazi behar delako ur-baliabideen erabilera arrazionalerako irizpideak aplikatzeko mekanismoa, eraginkorra izan dadin 2021-2022ko urte hidrologikoan, datorren urriaren 1ean hastekoa baita.

VII

Urriaren 7ko 34/1998 Legeak 57. artikuluan ezarritakoarekin bat, 4 bar baino gutxiagoko presioan konektatuta dauden eta 50.000 kWh-tik beherako urteko kontsumoa duten gas naturalaren azken kontsumitzaileei gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa aplikatu ahal izango zaie. Eskura dauden azken datuen arabera, gutxi gorabehera milioi bat eta erdi kontsumitzaileari aplikatzen zaio azken errekurtsoko tarifa —gehienak etxe-bezeroak eta ETEak dira—; gainerako kontsumitzaileei (sei milioi eta erdi inguru), berriz, merkaturatzaileek askatasunez ezarritako tarifak aplikatzen zaizkie.

Gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa kalkulatzeko metodologia ezartzen duen ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduan ezartzen da azken errekurtsoko tarifa kalkulatzeko sistema, eta, haren arabera, lehengaiaren kostua, sareetara sartzeko bidesariak, merkaturatze-kostuak eta hornidura-segurtasunetik eratorritako kostuak gehitzen zaizkio azken errekurtsoko tarifari. Beraz, tarifa hori ez da berria: kontsumitzaileak 2009tik baliatu ahal izan dira babes-tarifa horretaz, zeinak hornidura arazoizko prezioan jasotzea bermatzen baitu.

Lehengaiaren kostua hiru hilean behin berrikusten da, eta, egun, tarifaren % 30 inguru da. Lehengaiaren balioa kalkulatzeko, aipatutako aginduak onartutako metodologiari jarraituz, gehitu egingo dira batetik oinarri-gasaren kostua, Brent gordinaren kotizazioari lotutakoa, eta bestetik urtaro-gasaren kostua, gas naturalaren gerokoek NBP merkatuan duten kotizazioaren eta geroko horien aukeren kotizazioaren arabera. Sasoiko gasaren kostua urteko lehen eta laugarren hiruhilekoetan bakarrik aplikatzen da.

2021eko martxoaren hasieratik, gas naturalak Europako merkatu nagusietan duen prezioa gora eta gora ari da, Asiako gas-eskaria suspertzearen, munduan stock-maila txikiak egotearen eta Brentaren kotizazioak handiak izatearen eraginez. Horiek horrela, gas naturalaren prezioa 50-60 €/MWh-ko tartean dago; inoizko balio handienetara iritsi da, egungo prezioa azken urteetako prezioak halako hiru izanik. Era berean, gerokoek kotizazioak eta merkaturaren egoerak adierazten dute negu honetan prezioek antzeko balioei edo are handiagoei ere euts liezaiketela.

Gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa kalkulatzeko ezarri den metodologiaren arabera, gas naturalaren prezioen nazioarteko kotizazio bereziki handiek eragin beharko lukete lehengaiaren kostua bat-batean handitzea, eta, ondorioz, azken errekurtsoko tarifa

aplikatuta duten kontsumitzaileen tarifa ere bat-batean handitzea. Horrek ekar lezake 2021eko urriaren 1ean indarrean jarriko den azken errekurtsoko tarifa % 30 eta % 40 bitartean igotzea batez beste, kontsumo-bandaren arabera, azken eguneraketa egin zenetik (2021eko uztaila) lehengaiaren kostua % 100etik gora haztearen ondorioz. Eguneratzeen arteko hazkunde hori inoizko handiena izango litzateke, eta bezeroek —haisetako asko kalteberak dira— ahalegin ekonomiko handia egin beharko lukete hari aurre egiteko.

Egoera hau ezin zen aurreikusi kalkulu-metodologia prestatu zenean, eta hala erakusten du 2015etik aurrera lehengaiaren kostuak azken hiruhilekoetan izan duen bilakaerak. Aldi horretan, lehengaiaren kostuak ez du behin ere gainditu % 20a, eta lau aldiz bakarrik izan da % 10etik gorakoa.

Egoera zein ezin aurreikusizkoa, larria eta berehalakoa den ikusita, errege lege-dekretu honek mugatu egiten du, bi hiruhilekoz, gas naturalaren azken errekurtsoko tarifiari sartuta dagoen lehengaiaren kostuaren igoera, gizarte-babeseko aldi baterako eta salbuespenetzko neurri gisa, gas naturalaren nazioarteko kotizazioen ezohiko gorakada maila apalagoan egotz dakion tarifiari. Egoera honetan esku hartuta, kontsumitzaile arruntaren faktura hainbeste garestitzea ekidingo da; izan ere, gorakada % 30 eta % 40 artekoa izan liteke, kontsumo-bandaren arabera, lehengaiaren kostua azken eguneraketa egin zenetik (2021eko uztaila) % 100etik gora haztearen ondorioz. Gaur egungo testuinguruan, zeinean eguraldi txarraren ondorioz gas natural gehiago kontsumitu behar izaten baita neguan etxeak berotzeko, beharrezkoa da garestitzearen eragina apaltzea kontsumitzaileek aurrerantzean ere oinarritzeko insumo hori eskura dezaten babes-tarifaz baliatuta. Neurri hori aplikatzean, bereziki erreparatuko zaie beren egoera dela-eta kalteberagoak diren pertsonen.

Errege lege-dekretu honek azaltzen duen berehalako apaltze-mekanismoa eragotzi gabe, tarifiari aplikatu gabe geratzen den lehengai-kostuaren igoera, indarreko metodologiaren arabera kalkulaturako lehengaiaren kostuaren eta azaldutako mugaren arabera kalkulaturako kostuaren arteko aldeak eragindakoa, tarifiaren ondorengo berrikusketetan berreskuratuko da, aipaturako muga aplikatuta. Halaber, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren titularra gaitzen da mekanismo hori gara dezan.

VIII

Martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuak (5/2021 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena) autonomiei eta enpresei zuzeneko dirulaguntzak emateko COVID lerroa sortu zuen, 7.000 miloi euroko zuzkidurarekin, eta autonomia-erkidegoen eta Ceutako eta Melillako hiri autonomoen esku utzi zuen lerroaren kudeaketa eta kontrola.

Pandemia hasi zenetik, produkzio-sareari, enpleguari eta familien errentei laguntzeko neurrien programa aurrekaririk gabeko bat ezarri da; neurri horien artean, nabarmentzekoak dira Kreditu Ofizialeko Institutuaren bitartez bideratutako abal publikoak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei emandako aparteko laguntza publikoa eta langile autonomoentzako aparteko prestazioa. Neurri horien osagarri gisa, zuzeneko laguntzen COVID lerroaren helburua da pandemiak asko kaltetu dituen jardueretan diharduten autonomo eta enpresen ondare-egoera indartzea, enpresen kaudimena hobetzeko eta ekonomiak oro har duen gehiegizko zorpetzea gutxitzeko, hartara finantza-ezgonkortasuneko arazorik sortu ez dadin, horrek arriskuan jar lezakeelako suspertze ekonomikoa.

Helburu hori bete dadin, laguntzak honetarako erabili dira: pandemiak asko kaltetu dituen sektoreetan jarduten duten eta, ondorioz, 2020an (2019arekin alderatuta) urteko eragiketen kopuruan % 30 baino gehiagoko beherakada izan duten enpresek 2020ko martxoaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean berenganatu dituzten zorrak ordaintzeko eta aldi horretan izan dituzten kostu finkoak konpentsatzeko.

Ekonomiak urteko lehen hiruhilekoan izan duen bilakaera ikusita, apirilaren 20ko 6/2021 Errege Lege Dekretuak (6/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, COVID-19ak eragindako pandemiak kaltetu dituen enpresei eta autonomoei laguntzeko neurri osagarriak hartzen dituena) partzialki aldatu zuen aipatutako errege lege-dekretua, eta laguntzak betearazteko malgutasun handiagoa eman zien autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei. Hari esker, lehenik eta behin, autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek beste sektore batzuk sartu ahal izango zituzten laguntzen onuradun izateko hautagarriak diren sektoreen artean; bigarrenik, 2019ko zerga-aitorpenetan emaitza garbi negatiboak zituzten enpresek laguntzak eskuratzeko aukera izango zuten, betiere laguntzaren eskatzaileak salbuespenezko inguruabarrak egiaztatuz gero. Salbuespenezko inguruabarra izan daiteke, esate baterako, ohiko jarduera mugatzea aparteko arrazoiengatik, hala nola hondamendi naturalengatik, instalazioei edo laboreei eragindako kalte larriengatik, obregatik, plantillak handitzeagatik edo enpresaren jarduerarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Oro har, COVID-19aren krisiaren eragina gehien jasan duten enpresek laguntza horiek eskuratu ahal izan dituzte, lehenengo deialdiei esker hobera egin baitu gehiegizko zorpetzerik handieneko eta jardueraren beherakadarik handieneko enpresen egoerak. Ildo horretan, 5/2021 Errege Lege Dekretuko 3.1.a) artikulua ere ezartzen zuenez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzen duten enpresaburuei edo profesionalei ez zaie exijituko fakturazioan beherakada izan dutela egiaztatzeko.

Horrez gain, suspertze ekonomiko handia eta Estatuak eta autonomia-erkidegoek dagoeneko bideratu dituzten laguntza publikoak direla medio, enpresen ondare-egoera hobetu egin da. Hala ere, urteko azken hiruhilekoari begira, garrantzitsua da batetik susperraldia egonkortzea, bestetik Espainiako ekonomiaren zati esanguratsu baten gehiegizko zorpetzeak arazo makroekonomiko edo finantzario bat eragiteko arriskua uxatzea, eta azkenik enpresa-balantzeak indartzea, enpresa eta autonomo guztiek lagundu ahal izan dezaten inbertsioa, jarduera ekonomikoa eta enplegu-sorkuntza handitzen.

Hori hala izan dadin, 5/2021 Errege Lege Dekretua aldatzen da, laguntzek estaltzen duten epea luzatuta eta alderdi jakin batzuk argituta, baliabideak dituzten autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek laguntzen deialdi gehigarriak egin ahal izan ditzaten urtea amaitu arte geratzen den denboran. Horrela, laguntzen eragin dinamizatzailea maximizatuko da, eta beren ekonomia susper dadin laguntzen beharra duten sektore eta eremu geografiko guztietara iritsi ahal izango dira.

Hala, lehenik eta behin, laguntzek estaltzen duten epea lau hilabetez luzatzen da, maiatzaren 31tik irailaren 30era. Bigarrenik, COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako estatu-laguntzako neurriei buruzko Europar Batasunaren Aldi Baterako Esparruak xedatutakoari jarraituz, argitzen da ezen, laguntzen xede izan daitezkeen helburuen barruan, kostu finkoen kontzeptuak barnean hartzen dituela laguntza hauek edo beste batzuek dagoeneko estali ez dituzten kontabilitate-galerak. Finantza-egitura edozein izanik ere, galerek enpresaren ondare garbia gutxitu izana islatzen dute, eta, hortaz, behin betebeharrak eta zorrak estalita, laguntzak galerak konpentsatzeko erabiltzea koherentea da suspertze ekonomikoa, inbertsioa eta enplegu-sorkuntza bultzatze aldera enpresen kaudimena indartzeko helburuarekin.

Hala, autonomoek eta enpresek zorra kitatzeko eta hornitzaileei eta beste hartzekodun batzuei —izan finantzarioak edo ez-finantzarioak— ordaintzeko erabili ahal izango dute laguntza, baita izan dituzten kostu finkoak konpentsatzeko ere, baldin eta kostu horiek 2020ko martxoaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean sortu badira eta 2021eko martxoaren 13a baino lehenagoko kontratuek eragin badituzte, orduan jarri baitzen indarrean 5/2021 Errege Lege Dekretua.

IX

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake «aparteko eta presazko beharrezko dagoenetan», baldin eta ez badute eraginik Estatuko oinarriko erakundeen antolamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da baldin eta, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (otsailaren 4ko 6/1983 epaiaren 5. oinarri juridikoa, urtarrilaren 17ko 11/2002 epaiaren 4. oinarri juridikoa, uztailearen 3ko 137/2003 epaiaren 3. oinarri juridikoa, uztailearen 7ko 189/2005 epaiaren 3. oinarri juridikoa, 68/2007 epaiaren 10. oinarri juridikoa eta 137/2011 epaiaren 7. oinarri juridikoa), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea bada, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala —ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan— ematea eskatzen duen egoera batean, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar du badela «ezinbesteko lotura bat azaldutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaiaren 3. oinarri juridikoa, urriaren 20ko 182/1997 epaiaren 3. oinarri juridikoa eta uztailearen 3ko 137/2003 epaiaren 4. oinarri juridikoa)».

Horretarako, berriz ere adierazten da elektrizitatearen handizkako merkatuetan ezohiko prezioak hauteman direla, nazioarteko merkatuetan gas naturalaren kotizazioaren garestitze aurrekaririk gabekoaren ondorioz, eta horrek eragin sistemikoa duela ekonomian, zeina luze eta zabal jorratzen baita hitzurre honen I. eta V. apartatuetan.

Uren Legearen testu bateginaren 55. artikuluko 2. paragrafoa aldatzeko eta, modu horretan, ur-baliabideen erabilera arrazionalerako irizpideak sartzeko aparteko eta presazko beharrezko justifikatuta dago; izan ere, erreforma beharrezkoa da azaleko uren masak babesteko, VI. apartatuan azaldu bezala klima-aldaketako egoera honetan uraren eskuragarritasuna beherantz doalako Espainian.

Bestalde, Europar Batasunaren Aldi Baterako Esparruan ezarritako mugaren arabera, laguntzak 2021eko abenduaren 31 baino lehen eman behar dira. Hori dela eta, komeni da lehenbailehen txertatzea martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 1.3 artikuluko aldaketak, hartara autonomia-erkidegoek, geratzen diren funtsekin, laguntza-deialdi berriak abiaraz ditzaten edo abian daudenak zabaldu ditzaten.

Ondorioz, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presazko beharrezko dagoenari dagokion judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mende dago, Estatua politikoki zuzentzeko organoa den aldetik; erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar, hauetan oinarrituta: segurtasun juridikoa betetzea eta herritarrei eta enpresei bidezko prezioak eta prezio lehiakorrek bermatzea.

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik izango Estatuko oinarriko erakundeen antolamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Azaldu dugun hori guztia dela eta, «aparteko eta presazko beharrezko dagoenari» dago oraingo egoeran; horrela, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua Gobernuari errege lege-dekretuak eman ahal izateko ezartzen dion baldintza betetzen da.

X

Errege lege-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotzen diren erregulazio onaren printzipioak.

Proposamena bat dator arau-xedapenek bete beharreko erregulazio onaren printzipioekin; bereziki, premia-printzipioarekin, prezioak eratzeko disfuntzioa dagoelako, eta efizientzia-printzipioarekin, prezioen egitura arrazoizkoa delako.

Horrez gain, bai eperako kontratazioa sustatzeko tresnak eta bai gas naturalaren kotizazioa handitzearen ondoriozko gehiegizko ordainsaria gutxitzeko mekanismoak bete-betean errespetatzen dute Europako araudia.

Eperako kontratazioa sustatzeko tresna, errege lege-dekretu honen 4. artikuluan xedatutakoa, norgehiagoka-mekanismo gisa taxutzen da, eta, hartara, enkante zentralizatuen sistema bat bultzatzen du, enkantean jarritako oinarri-energia erosten duten eragileen arteko lehia bermatzen duena.

Era berean, energia eskaintzen duten eragileei arrazoizko errentagarritasunaren printzipioa bermatzen zaie (segurtasun juridikoaren printzipioaren adierazpen gisa), erreserba-prezio bat ezarri; erreserba-prezioa zehazteko, metodologia jakin bat erabiliko da, parametro objektibo batzuk eta enkantean jarritako objektua sortzearen kostuak kontuan hartuko dituen, enpresa titularrek emandako informazioan oinarrituta.

Bestalde, aipatutako neurria azken urteetan hautemandako merkatu-gabeziari emandako arauzko erantzuna da. Izan ere, likideziaz ezaren eraginez, merkaturatzaile independenteek eta merkatuko kontsumitzaile zuzenek ez dute estaldura nahikorik elektrizitatearen handizkako merkatuaren gorabeheren eraginpean egoteak dakartzen arriskuei aurre egiteko; gorabehera horiekiko esposizio hain handia izatearen arrazoia da, azken batean, talde bertikalki integratuek ez dutela pizgarrikeria beren energia (edo haren zati bat, behintzat) hirugarrenekin sinatutako epe luzerako kontratuetan jartzeko. Neurri horrek aukera ematen du, finean, merkatuaren funtzionamendua hobetzeko, gainerako handizkako merkatuetan hautemandako prezio-seinaleetan ondorioz sortu gabe.

Gas naturalaren kotizazioa handitzearen ondoriozko gehiegizko ordainsaria gutxitzeko mekanismoari dagokionez, neurriak bete-betean errespetatzen du elektrizitate-merkatua diseinatzeko Europako araudia. Izan ere, gutxitzea ex post egiten da, alegia, merkatutik at, eta, beraz, ez du eraginik izango ez merkatu horietan islatzen den prezio-seinalean, ez egungo kasazio marjinalistako eskeman, Europar Batasuneko zuzenbidearen printzipio gidariekin bat.

Arrazoizko errentagarritasunaren printzipioa ere betetzen du neurriak: gasaren kotizazioa bat-batean handitzearen ondorioz jasotako aparteko errentei bakarrik eragingo die gutxitzeak, eta, beraz, gutxitzea deuseza izango da batez besteko prezioak balio historikoetara itzultzen direnean.

Azkenik, gasaren goranzko kotizazioa koiunturala denez, gutxitze-tresna aldi baterako tresna berezia da, 2022ko martxoaren 31ra arte indarrean egongo dena, eta, hortaz, ez die eragingo inbertsiorako epe luzerako seinaleei.

Gainera, neurri honek proportzionaltasun-printzipioa betetzen du; izan ere, gas naturalaren prezioaren gehiegizko gutxitzea saihesteko atalase-multzo bat ezarri da, eta bakarrik aktibatuko da gas naturalaren prezioa handiagoa denean MIBGAS merkatuak 2017aren hasieratik, hau da, abian jarri zenetik, irailaren hasierara arte izan zuen kotizazioaren prezioa baino. Gardentasun-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu bat denez, ez du aurretiazko kontsulta publikorik behar, ez eta entzunaldi-izapiderik eta informazio publikoaren izapiderik ere, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua arabera.

Errege lege-dekretu honek hitzaurrea eta xedapen-zatia ditu. Xedapen-zatiak egitura hau du: hamaika artikulua, zazpi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, zazpi azken xedapen eta eranskin bat. Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13., 14., 22., 23. eta 25. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da errege lege-dekretua; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio arlo hauen gaineko eskumena: jarduera ekonomikoaren

plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; herri-ogasuna; baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen gaineko legegintza, antolamendua eta emakida, urek autonomia-erkidego bat baino gehiago zeharkatzen dutenean; ingurumena babesteko oinarriko legegintza, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babes-arau gehigarriak ezartzeko ahalmenak izatea; eta meatzeen eta energiaren araubideen oinarriak.

Era berean, Gobernuari eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko titularrei gaikuntza ematen zaie, beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman eta neurriak har ditzaten; izan ere, arrazoi teknikoak direla kausa, baliteke Ministro Kontseiluak edo ministerio-sail eskudunetako titularrek zehaztapen batzuk egin behar izatea errege lege-dekretu honetan.

Gaikuntza horren arabera, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan zehaztutako baimenaz baliatuta, Gobernuko hirugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak eta Gobernuko lehenengo presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2021eko irailaren 14ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

Kontsumitzaileak babesteko eta energia-fiskalitatearen arloko neurriak

1. artikulua. *Bizitzeko gutxieneko hornidura sortzea.*

1. Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeari 45 bis artikulua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«45. bis artikulua. *Bizitzeko gutxieneko hornidura.*

1. Bizitzeko gutxieneko hornidura gizarte-babeseko tresna bat da, eta kalteberatasun-egoeran dauden kontsumitzaileek bizi duten pobrezia energetikoko egoerari aurre egitea du helburu. Bizitzeko gutxieneko horniduraren bidez, mugako potentzia bat ezartzen da, gutxieneko konfort-baldintzak bermatzen dituena, eta kontsumitzaileek ezin izango dute hura gainditu sei hilabetez. Denbora horretan, ezin izango zaie hornidura eten, erregelamendu bidez ezarritako baldintzekin bat.

2. Bizitzeko gutxieneko hornidura aplikatuko zaie 52.3 artikuluan aipatzen diren lau hilabeteak igaro ondoren fakturak ordaindu ez dituzten kontsumitzaile kalteberei.

3. Ezin izango da hornidura-puntu bat eteteko prozedura hasi, baldin eta titularrak kontsumitzaile kaltebera bada eta une horretan bizitzeko gutxieneko hornidura aplikatzen ari bazaio, edo aurretik ez bazaio bizitzeko gutxieneko hornidura aplikatu.

4. Bizitzeko gutxieneko hornidurari dagokion mugako potentziaren balioa erregelamendu bidez ezarriko da.

5. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak behar diren prozedura-aldaketak ezarriko ditu konpainia banatzaile eta merkaturatzaileek etxe bateko hornidura bizitzeko gutxieneko hornidurara egokitu ahal izan dezaten».

2. Aldatu egiten da abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52. artikuluko 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Artikulu honen 4. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioei edo azken errekurtsoko tarifei atxikitako kontsumitzaileei energia elektrikoaren hornidura eten ahal izango zaie, erregelamendu bidez erabakitako baldintzetan, baldin eta ordaintzeko errekerimendua frogatzeko moduan egin zaienetik gutxienez bi hilabete igaro eta ordainketarik egiten ez badute. Horri dagokionez, errekerimendua egiteko edozein bide erabil daiteke, betiere interesdunak edo haren ordezkariak hartu duela jasota geratzen bada, eta errekerimendua zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.

Kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioei edo azken errekurtsoko tarifei atxikitako administrazio publikoen kasuan, lehen errekerimendua egin zenetik lau hilabete igaro eta ordainketarik egiten ez badute, hornidura eten ahal izango da.

Ondorio horietarako erregelamendu bidez zehazten diren kontsumitzaile kalteberen kategorien kasuan, lehen errekerimendua egin zenetik lau hilabete igaro eta ordainketarik egiten ez badute, bizitzeko gutxienezko hornidura aplikatuko zaie, 45 bis artikuluko baldintzetan».

2. artikulua. *Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zehaztea 2021eko ekitaldirako.*

1. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria, 2021eko ekitaldirako, hau izango da: energia elektrikoa —zentraleko barratan neurtua— ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzegatik zergadunak zergaldian instalazio bakoitzeko jaso behar duen guztizko zenbatekoa, hirugarren eta laugarren hiru hileko naturaletan sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

2. Hirugarren hiru hilekoko ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, zergaldiko energia elektrikoaren ekoizpenak zentraleko barratan neurtuta daukan balioa hartuko da, eta hiruhileko horretan sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduko zaizkio, Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeak 8. artikuluan aurreikusten duen zerga-tasa aplikatuko da, eta aurretik egindako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kenduko da.

3. Laugarren hiru hilekoko ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, zergaldiko energia elektrikoaren ekoizpenak zentraleko barratan neurtuta daukan balioa hartuko da, eta hirugarren eta laugarren hiru hileko naturaletan sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduko zaizkio, abenduaren 27ko 15/2012 Legeak 8. artikuluan aurreikusten duen zerga-tasa aplikatuko da, eta aurretik egindako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kenduko da.

II. TITULUA

Eperako kontratazioa sustatzea, isurketarik ez dakarren energia inframarjinal kudeagarria esleitzeko merkatu-mekanismoen bidez

3. artikulua. *Eperako kontratazioa sustatzea, isurketarik ez dakarren energia inframarjinal kudeagarria esleitzeko merkatu-mekanismoen bidez.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, energia elektrikoa epera kontratatzea sustatuko duten merkatu-mekanismoak ezarriko dira, eperako merkatuetako lehia- eta likidezia-maila dela-eta hala behar den bitartean. Mekanismo horiek, hain zuzen ere, energia epe luzera erosteko kontratuen enkanteak izango dira. Deialdian zehazten den denboraz eta han xedatutako baldintzetan ezarriko dira, eta aukera emango dute, besteak beste, elektrizitate-merkatuetako likidezia handitzeko.

2. Energia epe luzera erosteko kontratuen enkanteei lotutako sorkuntza hau izango da: isurketarik egiten ez duten instalazio inframarjinal kudeagarrietan, hain zuzen ere berriazko ordainsaririk jasotzen ez duten eta energia berriztagarriak garatzeko enkanteetan esleipendun izan ez direnetan, azken hamar urteetan sortu den energiaren urteko balio txikiena zein den, bada haren % 25 gehienez ere.

3. Aipatutako enkanteak forward motako operako kontratuen bidez gauzatuko dira, eta kontratuok urtebeteko edo gehiagoko likidazio-aldia izango dute.

4. Oinarri-energia elektrikoa izango da enkantean jarriko den produktua, eta energia elektriko unitateko prezioa (€/MWh-tan adierazita), berriz, eskaintza-aldagaia.

5. Erreserba-prezio konfidentzial bat ezarriko da, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak proposatu eta Energiaren Estatu Idazkaritzaren ebazpen baten bidez onartutako metodologia objektibo eta halaber konfidentzialaren bidez kalkulatuta, eta prezio horretatik beherako eskaintzak baztertu egingo dira. Aipatutako metodologia parametro objektibo batzuk eta enkantearen xede den sorkuntzaren kostuak izango ditu kontuan, enpresa titularrek emandako informazioa oinarri hartuta.

6. Energia epe luzera erosteko kontratuen enkanteetan saltzaile izango dira energia elektrikoaren ekoizleak, baldin eta energia elektrikoaren sorkuntzan gailentzen diren eragileak badira, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legeak 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Isurketarik ez dakarten teknologia inframarjinal kudeagarrietako bakoitzak urtean gehienez ere sor dezakeen energiari 2. apartatuko balioak aplikatuta lortutako emaitzaren proportzional izango da operadore bakoitzaren nahitaezko energia-kantitatea. Operadore horiek Energiaren Estatu Idazkaritzari eskatu ahal izango diote beren eskaintza nahitaezko eskaintza baino handiagoa izan dadin, betiere enkantean jarri beharreko produktuak berak badira eta enkanteko arauak eta prozedurak berak badira.

7. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena eman ondoren, Energiaren Estatu Idazkaritzaren ebazpen baten bidez zehaztuko dira:

- a) Enkante-metodoa eta likidazio-tasa.
- b) Saltzaileak.
- c) Enkantea egiteko eguna eta enkantearen egutegia.
- d) Produktuen likidazio-aldia.
- e) Enkantean jarri beharreko energia zehatza.
- f) Xehetasun-zehaztapenak (enkantearen arauak) eta enkantean parte hartzeko bete beharreko formularioak, enkantean kalifikatzeko bermeak barne.
- g) Esparru-kontratua; besteak beste, enkantearen esleipendunek jarri beharreko bermeak jasoko ditu.
- h) Erosleek eskuratu ditzaketen gehieneko ehunekoak, hala badagokio.
- i) Enkantearekin zerikusia duen beste edozein parametro edo alderdi.

8. Enkanteetan erosle izan ahalko dira enkante bakoitzerako ezartzen diren berme eta betekizun formalak betetzen dituzten subjektu guztiak. Horretarako, ekoizpen-merkatuko subjektu izan eta merkatuan parte hartu beharko dute ezinbestean, hau da, merkaturatzaile bezero-zorrodun, merkatuko kontsumitzaile zuzen edo horien ordezkari izan beharko dute, abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 6. artikuluan definitutako moduan. Erosleak ezingo dira izan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legeak 7. artikuluan xedatutakoaren arabera) ebazpen baten bidez unean-unean elektrizitate-sektoreko oinarritzko operadoretzat hartu duen enpresa nagusia duten enpresa-talde bateko kide.

9. Halaber, erreferentziako merkaturatzaileek ere erosle gisa parte hartu ahal izango dute enkanteetan, kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioan hornidura emanez, 7. apartatuak aipatzen duen Energiaren Estatu Idazkaritzaren ebazpenean ezartzen diren baldintzetan. Aurreikuspen hori gauzatu dadin, Gobernuak berrikusi egingo du kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioari dagokion energiaren ekoizpen-kostua zehazteko formula, martxoaren 28ko 216/2014 Errege Dekretuan araututakoa (216/2014 Errege Dekretua, martxoaren 28koa, Energia elektrikoaren

kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioak kalkulatzeko metodologia eta energia elektrikoa kontratatzeke araubide juridikoa ezartzen dituen), hartara formula horrek kontuan har dezan enkanteko prezioaren erreferentzia, artikuluan honetan araututakoa, hari gehienez ere % 10eko pisua emanda, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

10. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gainbegiratu du enkanteen prozedura lehia bidez, gardentasunez eta diskriminaziorik gabe burutzen dela, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta, enkante bakoitzaren ondoren, txosten bat egingo du eta Energiaren Estatu Idazkaritzari bidaliko dio; txostenean, prozedura nola gauzatu den eta zer hobetu litekeen azalduko du.

11. OMI-Polo Español SA (OMIE) erakundeak administratuko du enkantea, zuzenean edo bere filialetako baten bidez. Enkantearen antolakuntzari egotz dakioken kostua enkantearen esleipendunek ordainduko dute, esleitu zaien potentziaren proportzioan. Enkantea administratzen duen entitateak kobratuko du diru-kopuru hori. Enkanterako deia egiten duen ebazpenean ezarriko da zer kostu egotzi behar zaion enkantearen antolaketari. Enkantea administratzen duen entitateak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eta Energiaren Estatu Idazkaritzari bidali beharko die enkanteen gauzatzeari buruz eskatzen dieten informazio guztia, formatu eta epe egokian.

12. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txosten bat egingo du urtean behin, enkanteen jarraipena egiteko eta eperako merkatuaren bilakaera aztertzeke, eta Energiaren Estatu Idazkaritzari bidaliko dio. Txostenean, besteak beste, hauen inguruko gomendioak jasoko dira: eperako kontratazioa sustatzeko tresna hau mantentzea egokia eta komenigarria den; zer maiztasunekin baliatu behar den, eta enkantean jarri beharreko produktuen potentzia eta ezaugarriak.

13. Enkanteetan erosten duten enpresek, hornidura behe-tentsioan (15 kW-ra arteko potentzia kontratatuan) jasotzen duten merkatu libreko kontsumitzaileei egiten dizkieten fakturretan adierazi beharko dute kasuan kasuko fakturazio-aldiarekin bat etorritik entregatu diren enkanteetan erosle izan direla, eta zehazki zer energia-kantitate erosi duten jakinarazi beharko dute.

III. TITULUA

Gas naturalak nazioarteko merkatuetan duen kotizazio-prezio handiaren ondorioz elektrizitate-merkatuak duen gehiegizko ordainsaria gutxitzeke mekanismoa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

4. artikulua. *Energia elektrikoa ekoizteke jardueraren ordainsaria gutxitzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2022ko martxoaren 31ra arte, gutxitu egingo da berotegi-efektuko gasik isurtzen ez duten teknologiak ekoizten dituzten instalazioek energia elektrikoa ekoizteagatik jasotzen duten ordainsaria. Gutxitzearen zenbatekoa honen proportzionala izango da: instalazio horiek, isurketak dakartzaten teknologia marjinalak handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioetan gas naturalaren prezioaren balioa txertatzearen ondorioz, jaso duten diru-sarrerarik handiena.

5. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

1. Aurreko artikuluan aipatzen den gutxitzea aplikatuko zaie Espainiaren lurralde penintsularrean kokatuta egon eta energia elektrikoa ekoizti arren berotegi-efektuko gasik isurtzen ez duten instalazioetako titularrei, erabiltzen duten teknologia edozein dela ere.

2. Aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira penintsulaz kanpoko lurraldeetan kokatuta dauden sistema elektrikoetako ekoizpen-instalazioak, baita abenduaren 26ko

24/2013 Legeak 14. artikuluan arautzen dituen ordainsari-esparruetako bat aitortuta duten ekoizpen instalazioak ere.

3. Era berean, ez dira gutxituko 10 MW-ko edo gutxiagoko potentzia garbia ekoizten duten instalazioak, abian noiz jarri diren kontuan hartu gabe.

6. artikulua. *Aplikazio-eremu objektiboa.*

Gutxitze horrek 5. artikuluan aipatutako energia elektrikoa ekoizteko instalazioen ekoizpenari eragingo dio, erabilitako kontratazio-modalitatea edozein dela ere.

II. KAPITULUA

Gutxitzea kalkulatzeko eta ordaintzea

7. artikulua. *Gutxitzearen zenbatekoa kalkulatzeko.*

Bosgarren artikuluan aipatzen den energia elektrikoa sortzeko instalazio bakoitzari hilabete bakoitzean zer gutxitze dagokion kalkulatzeko formula hau erabiliko da:

$$Y_i^t = \frac{Q_i^t x (P_{GN}^t - 20) x \alpha}{FMIG^t}$$

Formula horretan:

Y_i^t da i -garren instalazioan kasuan-kasuan kontuan hartu den t hilabetean gutxituko den zenbatekoa, eurotan adierazita.

Q_i^t da i -garren instalazioak t hilabetean ekoizti duen energia elektrikoaren kantitatea, MWh-tan adierazita. Kalkulua egiteko, zentralako barratan neurtutako energia zenbatuko da. Ponpaketa-instalazioen kasuan, gutxitzearen zenbatekoa kalkulatzeko, t aldiko ekoizpen garbiari ponpaketa kontsumitutakoa deskontatuko zaio. Ekoizpen garbiaren balioa negatiboa bada, Q_i^t -ren balioa 0 izango da.

$FMIG^t$ da gas naturalaren prezioak, t hilabetean, elektrizitatearen merkatu iberiarreko eguneko merkatuaren prezioan duen batez besteko internazionalizazio-faktorea. $FMIG^t$ kalkulatzeko, ziklo konbinatuko zentral baten batez besteko errendimendua hartuko da, eta eragiketa hau eginda lortzen den faktorearekin zatituko da: aipatutako instalazioek, hilabete horretan, prezio marjinala markatu duten orduen ehunekoa, bateko hainbestean adierazita; orduen ehunekoa haztatzeko, ordu bakoitzean kasazioaren xede izan den energiari erreparatuko zaio. $FMIG^t$ kalkulatzeko, ziklo konbinatu baten batez besteko errendimendua 0,55 dela joko da.

Prezio marjinala ziklo konbinatuko instalazio batek markatu ez duen orduen kasuan, eta, halaber, prezio marjinala teknologia bateko eta besteko zenbait instalazio fisiko biltzen dituen eskaintza-unitate batek markatu duen orduen kasuan, eskaintzak gas naturalaren prezioa internalizatu duela joko da baldin eta ziklo konbinatuko instalazioaren batek prezio marjinal horren inguruko eskaintza egin badu ($\pm\% 10$).

Horrez gain, ziklo konbinatuko zentralak, aurreko paragrafoarekin bat, prezio marjinal horren inguruko eskaintzarik egin duten jakiteko, eguneko merkatuan aurkeztutako eskaintza sinpleak eta konplexuak hartuko dira kontuan; honela:

– Prezio marjinalaren $-\% 10$ era arteko ziklo konbinatuko eskaintzarik egin den jakiteko, ziklo konbinatu bakoitzeko eskaintza hauetatik murriztaileena hartuko da ordu bakoitzerako: eskaintza sinplea, edo eguneko eskaintza konplexuaren batez besteko prezioa (hori kalkulatzeko, kasuan-kasuko instalazioan kasazioaren xede izan den energiari erreparatuko zaio).

– Prezio marjinalaren $+\% 10$ era arteko ziklo konbinatuko eskaintzarik egin den jakiteko, merkatuko prezioa $\% 10$ igoko da, eta isurketak egiten dituen zentralik dagoen

egiaztatuko da; halakorik badago, merkatuan kudeatuko litzateke, eskaintza sinpleak eta konplexuak aintzat hartuta.

FMIG¹ zehazteko, Espainiako zein Portugalgo sistema elektrikoaren eskaintza-unitateak hartuko dira kontuan.

P_{GN}^t da gas naturalak t hilabetearen duen batez besteko prezioa, megawatt-ordu bakoitzeko (MWh) eurotan (€) neurtuta. Kasuan-kasuan dagokion aldiko egun bakoitzean, gas naturalak gasaren merkatu iberiarreko (MIBGAS) balantzeko puntu birtualean duen batez besteko eskurako prezioa. Negoziazio-egunetan, merkatua zer prezioarekin itxi den, huraxe hartuko da kontuan. Gainerako egunetan, aurreko negoziazio-eguneko itxiera-prezioa hartuko da kontuan.

α da gutxitzea modulatzeko parametro bat, eta, hasiera batean, 0,9ko balioa izango du.

Hilabete bateko batez besteko prezioa, P_{GN}^t , 20 €/MWh baino txikiagoa bada, gutxitzearen zenbatekoa, Y_i^t , deuseza izango da hilabete horretan.

Gutxitzea aplikatzen ari den bitartean instalazio baten titulartasuna aldatzen bada, instalazioak sortu dituen zenbatekoak (eurotan adierazita) kalkulatu dira titular bakoitzarentzat, alde bakoitzak instalazioaren titulartasuna zenbat egunez izan duen aintzat hartuta.

8. artikulua. *Gutxitzeak kalkulatzeko, jakinarazteko eta ordaintzeko prozedura.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, sistemaren operadoreak 5. artikuluan definitutako instalazioen ordainsariaren gutxitzea kalkulatu du, hilabete bakoitzerako, 7. artikuluko metodologiarekin bat. Gutxitzeak hileroko likidatu eta ordainduko dira.

2. Horretarako, hil bakoitzaren 15a baino lehen, sistemaren operadoreak 5. artikuluan aipatzen diren instalazioen titular diren enpresei jakinaraziko dizkie aurreko hilabeteko gutxitzearen ondoriozko zenbatekoak, eta horiek nola kalkulatu diren zehaztuko du. Merkatuko operadoreak behar den informazioa bidaliko dio sistemaren operadoreari, gutxitzearen zenbatekoa zehazteko.

3. Instalazioen titularrek hilabeteko epea izango dute, jakinarazpena jasotzen dutenetik, sistemaren operadoreari ordaintzeko.

4. Aurreko apartatuan aipatzen diren ordainketak sistemaren operadoreak instalazio bakoitzerako egingo duen likidazioaren konturako ordainketatzat joko dira. Ekitaldiko ekoizpen-neurrien behin betiko datuak jakitera eman deirenean —zentraleko barratan adieraziko dira— egingo du likidazioa sistemaren operadoreak.

9. artikulua. *Diru-sarreraren izaera eta xedea.*

1. Sistemaren operadoreak 8. artikuluko ordainketen zenbatekoa aitortuko dio sektore elektrikoaren likidazio arautuez arduratzen den organoari, behin 5. artikuluan aipatzen diren titularrek ordainketak egin ondoren.

2. Zenbateko horiek sistemaren diru-sarrera likidagarritzat hartuko dira, eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 16.1 artikuluan aipatzen dituen sistema elektrikoaren zordunketen bidez finantzatzutako kostuak finantzatzeko erabiliko dira, bai eta, hala badagokio, sistemaren diru-sarreraren eta kostuen arteko aldi baterako desorekak estaltzeko ere.

IV. TITULUA

Ur-baliabideen erabilera arrazionalerako irizpideak

10. artikulua. *Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategina aldatzea.*

Paragrafo hauek eransten zaizkio uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bateginaren 55. artikulua 2. apartatuari, eta honela geratzen dira idatzita:

«Jabari publiko hidraulikoaren ustiapen arrazionala bermatzearen helburua da bizi-kalitatea babestu eta hobetzea eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko, Konstituzioaren 45.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori lortzeko, 50 hm³ baino gehiagoko edukiera duten eta erabilera nagusiz hornikuntza, ureztapena eta nekazaritzako eta abeltzaintzako beste erabilera batzuk ez dituzten urtegiarako, arroko erakundeak honako hauek zehaztuko ditu, urte hidrokologikoko bakoitzaren hasieran, hala badagokio bildutako ur-erreserbari eta sasoiko aurreikuspenei erreparatuta:

a) Normaltasun hidrokologikoko egoeretan eta luzaroko lehortekoetan hilabetean batez beste hustu beharreko gutxieneko eta gehieneko emarien araubidea.

b) Hilabete bakoitzerako bildutako erreserben gutxieneko bolumenaren araubidea.

c) Hileko gutxieneko erreserba. Erreserba horrek urtegiaren biltegitutara egon beharko du, nahi ez den ingurumen-ondoriorik eragin ez dezan urtegiak eta urtegiarekin lotutako ur-masetako faunan eta floran.

Normaltasun hidrokologikoko egoeretan, emarien eta biltegitutako erreserben araubideek aukera eman beharko dute 50. artikuluan araututako erabilera komunak gauzatzeko.

Era berean, ahalegina egingo da ustiapen arrazionala bateragarria izan dadin urtegi-ertzeke udalerrien dinamizazioari lotutako jarduera ekonomiko jasagarriak egitearekin, kasuan-kasuan dagokion arroko plan hidrokologikoan ezartzen den erabilerekin lehentasun-ordenaren esparruan.

Prozeduran, arroko erakundeak entzunaldia emango die beti ere emakidunari, dagokion autonomia-erkidegoan ibai-arrantzaren arloan eskumena duten organoei eta urtegi-ertzeke udalerriei».

Lehenengo xedapen gehigarria. *Gehiegizko ordainsaria gutxitzeko mekanismoari lotutako informazio-betebeharrak.*

Errege lege-dekretu honen III. tituluak arautzen duen gutxitze-mekanismoari dagokionez, gaitzeta eta mandatu hauek ezartzen dira:

1. Likidazioez arduratzen den organoa gaitzen da Merkatuaren Operadoreari eta Sistemaren Operadoreari behar den informazioa eska diezaien, errege lege-dekretu honek ezartzen dituen betebeharrak konplitzeko.

2. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hilabete igaro baino lehen, sistemaren operadoreak instalazioen titularrak identifikatuko ditu, errege lege-dekretu honek 8. artikuluan aurreikusten duen prozedura aplikatu ahal izateko.

3. Hilean behin, sistemaren operadoreak instalazio eta titular bakoitzeko kalkulaturako gutxitzei buruzko informazio xehatua bidaliko die Energiaren Estatu Idazkaritzari eta likidazioez arduratzen den organoari, baita jaso dituen ordainketei buruzko informazioa ere.

Bigarren xedapen gehigarria. *Isurketarik ez dakarren energia inframarjinal kudeagarriaren lehen enkantea.*

Merkatuaren inguruabarrak aintzat hartuta, energia epera erosteko kontratuen lehen enkantea, artikuluan aipatutakoa, 2021eko abenduaren 31 baino lehen egingo da.

Lehen enkante horretan enkantera jarriko den urteko energiaren kopurua 15.830,08 GWh izango da, eta honela banatuko da 3.6 artikuluan ezarritako saltzaileen artean:

- Endesa taldea: 6.737,26 GWh.
- Iberdrola taldea: 7.323,63 GWh.
- Naturgy taldea: 1.405,48 GWh.
- EDP taldea: 363,72 GWh.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Sistema elektrikoaren zordunketak eguneratzea.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31ra arte, prezio hauek aplikatuko zaizkie sistema elektrikoaren zordunketen tarifa-segmentuei:

a) Potentzia-terminoen prezioak:

Tarifa-segmentua	Zordunketen potentzia-terminoa (€/kW urtean)					
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
1	0,281544	0,018107				
2	0,349842	0,175074	0,127195	0,127195	0,127195	0,058307
3	0,363151	0,181740	0,132055	0,132055	0,132055	0,060525
4	0,213255	0,106741	0,077547	0,077547	0,077547	0,035542
5	0,170749	0,085447	0,062081	0,062081	0,062081	0,028458
6	0,083525	0,041797	0,030373	0,030373	0,030373	0,013921

b) Energia-terminoen prezioak:

Tarifa-segmentua	Zordunketen energia-terminoa (€/kWh)					
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
1	0,004133	0,000827	0,000207			
2	0,002304	0,001706	0,000922	0,000461	0,000295	0,000184
3	0,001253	0,000928	0,000501	0,000251	0,000161	0,000100
4	0,000588	0,000435	0,000235	0,000118	0,000075	0,000047
5	0,000482	0,000357	0,000193	0,000096	0,000062	0,000039
6	0,000183	0,000136	0,000073	0,000037	0,000023	0,000015

2. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31ra arte, prezio hauek aplikatu behar zaizkie 2 VE eta 3 VE tarifa-segmentuei, Sistema

Elektrikoaren Zordunketak Kalkulatzeko Metodologia ezartzen duen martxoaren 9ko 148/2021 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriarekin bat:

a) Behe-tentsioan konektatutako ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak (2 VE tarifa-segmentua):

Tarifa-segmentua	Zordunketen potentzia-terminoa (€/kW urtean)					
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
2 VE	0	0	0	0	0	0

Goi-tentsioan konektatutako ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak (3 VE tarifa-segmentua):

Tarifa-segmentua	Zordunketen energia-terminoa (€/kWh)					
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
2 VE	0,004897	0,003626	0,001960	0,000980	0,000627	0,000391

Tarifa-segmentua	Zordunketen potentzia-terminoa (€/kW urtean)					
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
3 VE	0	0	0	0	0	0

3. Kontratazio-modalitatea eta -baldintzak edozein direla ere, merkaturatzaileek, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrerako kontsumoen fakturak egiten dituztenean, deskontua aplikatu beharko diete aurreko apartatuan ezartzen diren zordunketei; hain zuzen ere apirilaren 19ko TED/371/2021 Aginduan ezarritako zordunketen gainean egingo da deskontua (TED/371/2021 Agindua, apirilaren 19koa, Sistema elektrikoko zordunketen eta ahalmenaren arabera ordainketen prezioak ezartzen dituen, 2021eko ekainaren 1etik aurrera aplikatzeko). Deskontu hori eurotan adieraziko da, eta aparteko lerro batean agertuko da fakturan.

Tarifa-segmentua	Zordunketen energia-terminoa (€/kWh)					
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
3 VE	0,003944	0,002921	0,001577	0,000790	0,000507	0,000315

4. Kontsumitzaileei deskontua aplikatzean, irizpide hauek aplikatu beharko ditu merkaturatzaileak:

a) Potentzia-terminoari dagokionez, kontratuaren potentzia-terminoak kasuan-kasuan duen prezioari zenbateko hau deskontatuko zaio: zordunketen potentzia-termino berriak aplikatzearen ondorioz dagokion aldaketa.

b) Energia-terminoari dagokionez:

1.a Elektrizitate-merkatuaren orduko prezioari indexatutako kontratuen kasuan, edo kontratuaren ordu-tarteak zordunketak egin diren aldiekin bat datozen kasuetan, bidesari bakoitzari dagokion aldaketa deskontatuko zaio kontratuko energia-termino bakoitzari.

2.a Kontratuko ordu-tarteak ez badatoz bat zordunketak egin diren aldiekin, kontratuko energia-terminoaren prezio bakoitzari zordunketa berrien energia-terminoen aldaketak kenduko zaizkio, kontsumitzailearen kontsumo-profilarekin haztatuta. Ondorio horietarako, behe-tentsioko kontratuei kontsumo-profilen II. multzoa aplikatuko zaie, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abenduaren 18ko

ebazpenak IV. eranskinean jasotakoa, edo, hala badagokio, ebazpen horren orde kasuan kasuko bidesarirako eman den xedapenean jasotakoa (2020ko abenduaren 18ko Ebazpena, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiarena, energia-likidazioa egiteko asmoz kontsumo-profila eta kalkulu-metodoa onartzen dituen 2021. urterako; 4 motako eta 5 motako kontsumitzaileei aplikatuko zaizkie, baldin eta kontsumoaren ordukako erregistrorik ez badute, eta, betiere, abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuaren arabera, zeinak Sistema Elektrikoa Neurtzeko Puntuen Araudi Bateratua onartzen baitu). Gainerako kontsumitzaileei bakoitzari hobekien egokitzen zaion profila aplikatuko zaie.

Ondorio horietarako, hona hemen behe-tentsioko kontsumitzaileei dagozkien aldaketak, hornidura-aukera ohikoenei erreparatuta:

Kontratu mota	Energia-terminoaren aldaketa (€/kWh)		
	1. aldia	2. aldia	3. aldia
2.0TD sarbide-tarifa-Ordu guztietan prezio bera aplikatzen duen hornidura-kontratua.	-0,035838		
2.0TD sarbide-tarifa-Bi tarteko hornidura-kontratua. Tarteak bat datoz DHA ordu-bereizketa duten 2.0 eta 2.1 sarbide-tarifen ordutegiekin.	-0,048184	-0,023803	
2.0TD sarbide-tarifa-Hiru ordu-tarte, 148/2021 Errege Dekretuarekin bat.	-0,101607	-0,020321	-0,005080

5. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gainbegiratuko du kontsumitzaileei aplikatzen zaien aldaketa bat datorrela zordunketa berrien ondoriozko kostu txikiagoekin, eta modu objektibo eta gardenean eta luzamendurik gabe ezartzen dela.

6. Merkaturatzaileek xedapen honetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste astuna izan daiteke, abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 65.25 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontsumitzailea babesteko neurriak ez aplikatzeari dagokionez.

Laugarren xedapen gehigarria. *Energia berriztagarriko iturrien, kogenerazioaren eta hondakinen bidez energia elektrikoa ekoizteko instalazioei aplikatu beharreko ordainsari-parametroak berrikustea.*

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, likidazioez arduratzen den erakundea den aldetik, behar den likidazioa egingo du berariazko ordainsari-araubidetik datorren ordainsaria egokitzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga etetearen ondorioz instalazioek ordaindu ez dituzten zenbatekoak kenduta, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Egokitzapen hori aipatutako artikulua indarrean jarri ondoren egin beharreko doikuntzak dituen lehen likidazioan egingo da.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Eperako kontratazioa sustatzeko mekanismoaren eraginpeko energia gutxitzea.*

3. artikuluko merkatu-mekanismoen arabera energia saltzen duten subjektuen titulartasuneko sorkuntza-instalazioek ordaindu behar dituzten kopuruak doitu egingo dira, hala badagokio, elektrizitate-merkatuan isuri ez den CO₂-aren ordainsariari aplikatzen zaion legerian aurreikusitako gutxitze-mekanismoak aplikatzearen ondorioz, baita errege lege-dekretu honen III. tituluan aurreikusitako gutxitze-mekanismoa aplikatzearen ondorioz ere. Aipatutako doikuntza epera kontratatutako energiaren zati proportzionalari aplikatzekoa zaio, betiere enkantearen prezioak % 10 handiagoak edo txikiagoak badira eguneko merkatuak entrega-aldian duen batez besteko prezioa baino.

Doikuntza, saltzaileen aldekoa bada, aipatutako mekanismoen bidez lortutako diru-sarreraren kargura finantzatu da.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren titularraren aginduz ezarriko da doikuntza aitortzeko, kalkulatzeko eta likidatzeko prozedura.

Seigarren xedapen gehigarria. *Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga-tasa.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31ra bitartean, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga-tasa % 0,5 izango da.

Zerga-tasa hori aplikatuta ateratako kuotak ezingo dira izan zenbateko hauek baino txikiagoak:

a) 0,5 euro megawatt-orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea erabiltzen denean edo industria-erabileretarako, edo portuan atrakatuta dauden eta aisialdirako ontzi pribatuak ez diren itsasontzietarako, edo trenbideko garraiorako;

b) 1 euro megawatt-orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea beste erabilera batzuetara bideratzen denean.

Aurreko letretan aurreikusitako baldintza betetzen ez denean, haietan adierazitako zenbatekoak zerga-tasatzat hartuko dira, eta kasuan-kasuko aldian izan den guztizko hornidurari edo kontsumoari aplikatuko zaizkio —megawatt-ordutan (MWh) adieraziko da hornidura edo kontsumoa—.

Ondorio horietarako, hauek hartuko dira industria-erabileratzat:

a) Goi-tentsioan edo industria-instalazioetan gauzatutakoak.

b) Behe-tentsioan gauzatutakoak, nekazaritzako ureztaketetarako badira.

Aurreko a) eta b) letretan adierazitako gutxieneko zerga ez da aplikatuko Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legeak 98.1 artikuluko a), b), c) eta d) letretan aurreikusten dituen kasuetan.

2. Xedapen hau aplikatzeak finantzaketa autonomikoko sistemaren baliabideetan izan dezakeen eragina aztertu egingo da, behar diren neurriak hartu ahal izateko, baita konpentsaziokoak ere, hala badagokio, Autonomia Erkidegoak Finantzatzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 2.bat.g) artikuluko erakundeen arteko leialtasunaren printzipioari lotuta ezartzen duen esparruan.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Lehengaiaren kostuak gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa duen balioaren aldaketa mugatzea.*

1. 2021eko urriaren 1etik aurrera aplikatzekoa den gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa egotzi beharreko lehengaiaren kostuak Gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa kalkulatzeko metodologia ezartzen duen ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduan ezarritako metodologiaren arabera kalkulatu da, eta ezin izango du gainditu Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren ekainaren 24ko ebazpenak ezartzen duen indarreko balioaren % 35 (ebazpen horren bidez argitaratzen da gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa). 2022ko urtarrilaren 1eko berrikuspenean ezartzen da ezen lehengaiaren kostua gehienez ere % 15 igo daitekeela 2021eko urriaren 1eko berrikuspenean indarrean egongo denarekin alderatuta. Apirilaren 1eko berrikuspenean eta haien ondokoetan, ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduak ezartzen duen indarreko metodologia arrunta aplikatuko da.

2. Ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduko metodologiaren arabera kalkulatuak lehengaiaren kostuaren eta aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko lehengaiaren kostuaren arteko aldea 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egingo diren azken errekurtsoko tarifaren berrikuspenean berreskuratuko da, honen arabera:

a) Ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduko metodologia aplikatzearen ondorioz lehengaiaren kostua, aurreko berrikuspenean aplikatu zen balioarekin alderatuta, % 15 edo gehiago hazten bada, ez da kopururik berreskuratuko.

b) Ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduko metodologia aplikatzearen ondorioz lehengaiaren kostua, aurreko berrikuspenean aplikatu zen balioarekin alderatuta, % 15 baino gutxiago hazten bada, handitu egingo da balio hori, gehieneko mugara iritsi arte, alegia, % 15era iritsi arte.

3. Nolanahi ere, kopururen bat berreskuratzeko badago, ezin izango da lehengaiaren kostua murriztu.

4. Kopururen bat berreskuratzeko dagoen artean, ez da aplikatuko lehengaiaren kostuak izan dezakeen aldaketaren atalasea (% 2), zeina uztailearen 22ko ITC/1660/2009 Aginduak ezartzen baitu 10.1 artikuluan.

5. Artikulu hau aplikatzearen ondorioz berreskuratzeko dauden zenbatekoak handitu ahal izango dira. Horretarako, finantza-kostu bat egotziko da, 2014ko abenduaren 31n metatuta zegoen defizita finantzatzeko aplikatutako interes-tasa bera erabilita, hots, % 1,104.

6. Zor diren zenbatekoak berreskuratzeko prozedura ezingo da amaitu harik eta azken errekurtsoko merkaturatzaileek zenbateko horiek guztiak eta, hala badagokio, baita kasuan-kasuan dagozkion interesak ere, berreskuratu arte.

7. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren titularra gaitzen da xedapen honetan ezarritakoa garatzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Gutxitze-mekanismoa aplikatzen den lehen hilabeteko likidazioa.*

8. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako lehen likidazioan sartuko da errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik III. tituluak aurreikusten duen gutxitze-mekanismoa aplikatu behar den lehen hilabete osoa hasi arteko aldia.

Bigarren xedapen iragankorra. *Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta zerga horri dagozkion ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehaztea.*

Errege lege-dekretu honen 2. artikuluan aurreikusten den indarraldian, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta zerga horri dagozkion ordainketa zatikatuak zehazteko, kontuan hartuko da zenbat gutxitu diren zergadunaren diru-sarrerak errege lege-dekretu honek III. tituluan ezartzen duen gutxitze-tresnaren eraginez (Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeak arautzen du energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga).

Hirugarren xedapen iragankorra. *Uren Legearen testu bateginaren 55. artikulua aplikatzea 2021-2022 urte hidrologikoan.*

2021eko abenduaren 31 baino lehen, arroko erakundeek, Urtegiak Husteko Batzordeak proposatuta, Uren Legearen testu bateginaren 55.2 artikuluan baliabide hidrikoak zentzuz erabiltzeko jasotzen diren irizpideen arabera eman beharreko ebazpenak emango dituzte, eta 2021-2022 urte hidrologikoan arrazoizko ustiapen-neurriak aplikatu zaizkien urtegien zerranda jasotzen duen txosten arrazoitua igorriko diote Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Uraren Zuzendaritza Nagusiari, aipatutako irizpideei jarraikiz.

Azken xedapenetako lehengoa. *2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legea aldatzea.*

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen ehun eta hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko («Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetatik datozen diru-sarrerak») bat.a) epigrafea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Sektore Elektriakoaren Legeak aurreikusten dituen sistema elektrikoaren kostuak (energia berriztagarriak sustatzekoak) finantzatzeko, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkantearen diru-sarrera aurreikusien % 90, gehienez ere 2.000.000,00 mila euro».

Azken xedapenetako bigarrena. *Urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua aldatzea (Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen).*

Aldatu egiten da urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua (Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen), eta honela geratzen da idatzita:

1. Aldatu egiten da 19. artikuluko 4. apartatua, eta 5. apartatua eransten da. Honela geratzen dira idatzita:

«4. Etete-prozedura hasteko ezarritako epea amaitu baino hamabost egun baliadun lehenago, kontsumitzaileak artean ordainketa egin ez badu, enpresa merkaturatzaileak ordainketa-errekerimendua egingo dio berriro, frogatzeko moduan. Errekerimenduan, elektrizitate-hornidura zehazki zer datatik aurrera eten ahal izango den adieraziko da, IV. eranskinen edukien arabera.

Gizarte-bonuaren onuradun diren kontsumitzaile kalteberen kasuan eta 20. artikuluan jasotako kasuan izan ezik, enpresak lehen ordainketa-errekerimenduaren berri izan duenetik, edo, hala badagokio, merkaturatzaileak 2. apartatuan xedatutakoari jarraituz bigarren ordainketa-errekerimendua egiten duenetik bi hilabete igaro eta ez bada ordainketarik egin, enpresa merkaturatzaileak enpresa banatzaileari eskatu ahal izango dio elektrizitate-hornidura eten dezan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horretarako onartuta dituen prozeduraren eta sistema eta bitarteko telematikoen bidez. Eskaera hori egiten bada, etete-prozedura hasiko da, eta adierazi behar da kontratua hutsaldu behar den ala ez.

Gizarte-bonuaren onuradun diren kontsumitzaileen kasuan, enpresari lehen ordainketa-errekerimenduaren berri izan duenetik, edo, hala badagokio, 2. apartatuan xedatutakoari jarraituz merkaturatzaileak bigarren ordainketa-errekerimendua egiten duenetik lau hilabete igaro eta ez bada ordainketarik egin, enpresa merkaturatzaileak enpresa banatzaileari eskatuko dio bizitzeko gutxieneko hornidura aplika dezan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horretarako onartuta dituen prozeduraren eta sistema eta bitarteko telematikoen bidez, Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45 bis artikuluen arabera. Erreferentziako enpresa merkaturatzaileak idazki bat bidaliko dio kontsumitzaileari, VIII. eranskinen ereduaren arabera, inguruabar horren berri emateko. Hamar eguneko epea izango du idazkia bidaltzeko, aipatutako eskaera egiten denetik. Bizitzeko gutxieneko horniduraren aplikazio-aldia amaitutakoan, enpresa merkaturatzaileak enpresa banatzaileari eskatu ahal izango dio elektrizitate-hornidura eten dezan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horretarako onartuta dituen prozeduraren eta sistema eta bitarteko telematikoen bidez, eta kontratua hutsaldu behar den ala ez adieraziko dio.

Ezingo dira etete-egun izan ez jaiegunak, ez edozein arrazoi dela medio bezeroen arreta-zerbitzu komertzialik edo teknikorik ez dagoen egunak, halako egunetan ez baitago elektrizitate-hornidura berriz abian jartzerik, ez aipatutako egoeretako bat gertatzen den egunen bezpera».

«5. Bizitzeko gutxieneko hornidurak gehieneko potentzia bat izango du, 3,5 kW. Kontratutako potentzia 3,5 kW-tik gorakoa denean soilik aplikatuko da muga hori.

Nolanahi ere, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko titularrak agintzen badu, balio hori aldatu ahal izango da. Gehieneko

potentzia ezartzeko, kontuan hartu beharko dira, betiere, bizitzeko gutxieneko horniduraren onuradun diren kolektiboen inguruabar klimatologiko, sozial eta ekonomikoak».

2. II. eranskinaren gehigarriak aldatzen dira, errege lege-dekretu honen eranskinaren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera.

3. III. eranskina aldatzen da, errege lege-dekretu honen eranskinaren 2. apartatuaren ezarritakoaren arabera.

4. IV. eranskinaren gehigarriak aldatzen dira, errege lege-dekretu honen eranskinaren 3. apartatuan ezarritakoaren arabera.

5. VIII. eranskina gehitzen da, errege lege-dekretu honen eranskinaren 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretua aldatzea (COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena).*

Aldatu egiten da COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurrien martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluko 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Hautagarritzat jotzen diren autonomo eta enpresek jasotako zuzeneko laguntzak helburuari lotuak izango dira, eta zorra ordaintzeko eta hornitzaileei eta beste hartzekodun batzuei (finantzarioak zein ez-finantzarioak) ordainketak egiteko erabili beharko dira, bai eta sortutako kostu finkoak ordaintzeko ere, baldin eta 2020ko martxoaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean sortu badira eta 2021eko martxoaren 13a baino lehenagoko kontratuetatik badatoz. Lehenik eta behin, hornitzaileei eta beste hartzekodun ez-finantzario batzuei egindako ordainketak ordainduko dira, antzintasunaren arabera; hala badagokio, bigarrenik, hartzekodun finantzarioekiko zorra murriztuko da, abal publikodun zorraren murrizketa lehenetsita. Azkenik, laguntzaren geldikina kostu finkoak konpentsatzeko erabili ahal izango da, barnean direla enpresa-jardueraren berezko kontabilitate-galerak, baldin eta laguntza horiekin edo beste batzuekin estali ez badira».

Azken xedapenetako laugarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13., 14., 22., 23. eta 25. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da. Artikulu horrek Estatuari esleitzen dio arlo hauen gaineko eskumena: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; herri-ogasuna; baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen gaineko legegintza, antolamendua eta emakida, urek autonomia-erkidego bat baino gehiago zeharkatzen dutenean; ingurumena babesteko oinarritzko legegintza, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babes-arau gehigarriak ezartzeko ahalmenak izatea; eta meatzeen eta energiaren araubideen oinarriak.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta arauak emateko gaikuntza.*

Gobernuari eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko titularrei ahalmena ematen zaie, errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko, aplikatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten, beren eskumenen esparruan.

Azken xedapenetako seigarrena. *Erregelamenduzko xedapenak aldatzea.*

Errege lege-dekretu honek aldatzen dituen erregelamendu-arauetako xedapenak aldatu ahal izango dira haiek dauden arauaren erregelamendu-maila bereko arauen bitartez.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2021eko irailaren 14an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren II., III. eta IV. eranskinak aldatzea eta VII. eranskina gehitzea.

1. Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenaren 2. apartatuaren arabera, Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren II. eranskinako I., II. eta III. gehigarriak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

a) I. gehigarrian («Merkaturatzaileak, ordaintzeko epea amaitu dela jakinarazteko, pertsona fisiko diren merkatu libreko kontsumitzaileei igorri beharreko komunikazioaren eredia»), laukiaren ondotik datozen paragrafoetatik hirugarrena honela geratzen da idatzita:

«Behin KTBPri atxikita, eta betiere kontsumitzaile kaltebera izateko baldintzak betetzen dituzula egiaztatu baduzu, ordainketa-errekerimendu frogagarria jaso eta lau hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko da zure potentzia beste sei hilabetez. Denbora horretan, ezingo dizute eten hornidura».

b) II. gehigarrian («Erreferentziako merkaturatzaileak, ordaintzeko epea amaitu dela jakinarazteko, KTBPri atxikitako pertsona fisiko diren kontsumitzaileei igorri beharreko komunikazioaren eredia»), laukiaren ondotik datozen paragrafoetatik hirugarrena honela geratzen da idatzita:

«Beti ere kontsumitzaile kaltebera izateko baldintzak betetzen dituzula egiaztatu baduzu, ordainketa-errekerimendu frogagarria jaso eta lau hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko da zure potentzia beste sei hilabetez. Denbora horretan, ezingo dizute eten hornidura».

c) III. gehigarrian («Erreferentziako merkaturatzaileak, ordaintzeko epea amaitu dela jakinarazteko, gizarte-bonudun KTBPri atxikitako kontsumitzaileei igorri beharreko komunikazioaren eredia»), laukiko hirugarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Errekerimendua jaso eta lau hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, enpresa banatzaileak bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko du zure etxeko potentzia beste sei hilabetez, eta denbora horretan ere ezingo dizute eten hornidura».

2. Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenaren 3. apartatuaren arabera, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren III. eranskinako I., II. eta III. gehigarriak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

a) I. gehigarrian («Merkaturatzaileak merkatu libreko kontsumitzaileei igorri beharreko ordainketa-errekerimendu frogagarriaren eredia»), laukiaren ondotik datozen paragrafoetatik hirugarrena honela geratzen da idatzita:

«Behin KTBPri atxikita, eta betiere kontsumitzaile kaltebera izateko baldintzak betetzen dituzula egiaztatu baduzu, ordainketa-errekerimendu frogagarria jaso eta lau hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko da zure potentzia beste sei hilabetez. Denbora horretan, ezingo dizute eten hornidura».

b) II. gehigarrian («Erreferentziako merkaturatzaileak KTBPri atxikitako kontsumitzaileei igorri beharreko ordainketa-errekerimendu frogagarriaren eredu»), laukiaren ondotik datozen paragrafoetatik hirugarrena honela geratzen da idatzita:

«Betiere kontsumitzaile kaltebera izateko baldintzak betetzen dituzula egiaztatu baduzu, ordainketa-errekerimendu frogagarria jaso eta lau hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko da zure potentzia beste sei hilabetez. Denbora horretan, ezingo dizute eten hornidura».

c) III. gehigarrian («Erreferentziako merkaturatzaileak gizarte-bonudun KTBPri atxikitako kontsumitzaileei igorri beharreko ordainketa-errekerimendu frogagarriaren eredu»), laukiko hirugarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Errekerimendua jaso eta lau hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, enpresa banatzaileak bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko du zure etxeko potentzia beste sei hilabetez, eta denbora horretan ere ezingo dizute eten hornidura».

3. Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenaren 4. apartatuaren arabera, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren IV. eranskineko I. eta II. gehigarriak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

a) I. gehigarrian («Merkaturatzaileak, elektrizitate-hornidura eteteko prozedura hasteko epea amaitu baino hamabost egun balioudun lehenago, merkatu libreko kontsumitzaileei igorri beharreko ordainketa-errekerimendu frogagarriaren eredu»), laukiaren ondotik datozen paragrafoetatik hirugarrena honela geratzen da idatzita:

«Betiere kontsumitzaile kaltebera izateko baldintzak betetzen dituzula egiaztatu baduzu, behin KTBPri atxikita, arestian aipatutako datatik 2 hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, enpresa banatzaileak zure etxeko potentzia bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko du beste 6 hilabetez, eta denbora horretan ere ezingo dizute eten hornidura».

a) II. gehigarrian («Erreferentziako merkaturatzaileak, elektrizitate-hornidura eteteko prozedura hasteko epea amaitu baino hamabost egun balioudun lehenago, KTBPri atxikitako kontsumitzaileei igorri beharreko ordainketa-errekerimendu frogagarriaren eredu»), laukiaren ondotik datozen paragrafoetatik hirugarrena honela geratzen da idatzita:

«Betiere kontsumitzaile kaltebera izateko baldintzak betetzen dituzula egiaztatu baduzu, arestian aipatutako datatik 2 hilabetera ez baduzu ordaindu zor duzun zenbatekoa, enpresa banatzaileak bizitzeko gutxieneko hornidurara (3,5 kW) egokituko du zure etxeko potentzia beste 6 hilabetez, eta denbora horretan ere ezingo dizute eten hornidura».

4. Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenaren 5. apartatuaren arabera, VIII. eranskina gehitzen zaio urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuari, eta honela geratzen da idatzita:

«Bizitzeko gutxieneko hornidura aplikatuko dela jakinarazteko komunikazio-eredua

Jakinarazten dizugu ezen, zor duzun zenbatekoa ordaintzen ez baduzu, bizitzeko gutxieneko hornidurara egokituko dugula zure etxeko potentzia 6 hilabetez; potentzia hori 3,5 kW da. Lau hilabete horietan, ezingo zaizu hornidura eten, eta zure potentziak ezin izango du muga hori gainditu.

Kaltebera larri izateko baldintzak betetzen badituzu, Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (haren laburpena bidaltzen dizugu), bizi zaren udalerriko eta autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuekin harremanetan jar zaitezke, zure elektrizitate-hornidura ordaintzeko aukeraren berri eman diezazuten.

[Adierazi zer baldintza bete behar diren, errege-dekretu horren 3. artikulua arabera, kaltebera larri izateko]».